**TOLOSAKO INSTRUKZIOKO 1 ZENBAKIKO EPAITEGIA**

EDIKTUA, 17/05 falta-judizioaren ondoriozkoa. 16552

**VITORIA-GASTEIZKO LEHEN AUZIALDIKO 5 ZENBAKIKO EPAITEGIA**

EDIKTUA, 1086/05 prozedura arruntaren ondoriozkoa. 16553

# Iragarkiak

## Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

**KULTURA SAILA**

LEHIAKETA PUBLIKOA, irekia, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-paisaiaren egungo egoeraren diagnostikoa egiteko ikerlanarena (K-37/2006 espedientea). 16554

# Xedapen Orokorrak

### INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

### 4047

111/2006 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planaren zati arau-emailea onartzen duena.

Urkiolako Parke Naturala abenduaren 29ko 275/1989 Dekretu bidez deklaratu zuten. Otsailaren 22ko 102/1994 Dekretuak Urkiolako Parke Naturaleko baliabide naturalak antolatzeko plana onartu zuen. Haatik, Dekretu horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zen. Errekurtso hori Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak aztertu zuen, eta, 1997ko urriaren 24an, Auzitegi horrek emandako epaiak erabat deusez jo zuen Dekretua. Hori dela eta, Dekretua berraztertzeari eta berriro idazteari ekin zitzaion, Euskal Herriko natura babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 7. artikuluan ezartzen den prozedurari jarraituz. Hala, gaur egun indarrean dagoen ekainaren 18ko 147/2002 Dekretuak Urkiolako Parke

**JUZGADO DE INSTRUCCIÓN N.º 1 DE TOLOSA**

EDICTO dimanante del juicio de faltas n.º 17/05. 16552

**JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA N.º 5 DE VITORIA-GASTEIZ**

EDICTO dimanante del procedimiento ordinario L2 n.º 1086/05. 16553

# Anuncios

## Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

CONCURSO PÚBLICO por procedimiento abierto, para la elaboración de un estudio de investigación sobre el diagnóstico de la situación actual del paisaje lingüístico de la Comunidad Autónoma Vasca (Expediente K-37/2006). 16554

# Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

### 4047

DECRETO 111/2006, de 30 de mayo, por el que se aprueba la parte normativa del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Urkiola.

El Parque Natural de Urkiola fue declarado mediante Decreto 275/1989, de 29 de diciembre. Por Decreto 102/1994, de 22 de febrero, se aprobó el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Parque Natural de Urkiola; sin embargo, fue declarado nulo de pleno derecho por sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, de 24 de octubre de 1997, que estimó el recurso contencioso-administrativo interpuesto contra el mismo. Por este motivo se procedió a revisar y tramitar nuevamente, conforme al procedimiento establecido en el artículo 7 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, siendo aprobado un nuevo Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del Parque Natural del Urkio-

Naturaleko baliabide naturalak antolatzeko plan berria onartu zuen.

275/1989 Dekretuaren 8. artikuluan ezartzen dena aintzat hartuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 27. artikuluan ezartzen dena kontuan izanik, abenduaren 5eko 505/1995 Dekretuak Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planaren zati arau-emailea onartu zuen. Izan ere, legezko tresna horrek espazio babestua kudeatzeko araudia, erregulazioak eta irizpideak bildu behar ditu, baita jarduerak antolatzeko arauak eta helburu zehatzak garatuko dituzten programak gauzatzeko gidalerroak ere.

Euskal Herriko natura babesten duen ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 28. artikuluan ezartzen denaren arabera, erabilera eta kudeaketa arautzeko planek bost urteko indarraldia izango dute, eta, indarraldia amaitzean, nahitaez berraztertu beharko dira. Hortaz, Lege horren 28. artikuluaren aurreikuspenak kontuan izanik, Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plana berraztertu egin behar da, eta Lege horretako 29. artikuluan xedatzen den prozedurari jarraitu beharko zaio berraztertzea egin eta onartzeko.

Hori dela eta, Parke Naturala kudeatzeko foru-organoak hasierako dokumentua idatzi zuen. Ondoren, urriaren 23ko 6232/2003 Foru Aginduaren indarrez, dokumentu hori honako erakundeen txostenen mende jarri behar izan zen: Arabako Foru Aldundiaren txostena, udalen txostena, ingurunean gizarte-interesa duten elkarteen txostena, eta Naturzaintzaren –EAEko Natura Babesteko Kontseilu Aholkuemailearen– txostena. Horrez gain, dokumentua jendaurrean ere jarri behar zen. Hala, prozedura horretan aurkeztutako iradokizunak eta alegazioak aintzat hartu ondoren, Parke Naturaleko Zaingo-Batzordeak 2004ko maiatzaren 5ean dokumentua onartu zuen, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta Arabako Foru Aldundiak ere hasierako onarpena eman zioten, 2004ko maiatzaren 25ean eta 2004ko uztailaren 26an, hurrenez hurren.

Hasierako onarpena jaso ostean, dokumentua erakunde eskudunen hirigintza-txostenen mende izan zen. Horren ondoren, Bizkaiko eta Arabako foru aldundiek behin betiko onartu zuten Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plana, 2004ko azaroaren 23an eta 2005eko martxoaren 22an egindako bilkuretan. 2005eko azaroaren 18an, berriz, Bizkaiko Foru Aldundiak Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari helarazi zion Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plana, Eusko Jaurlaritzak Plan horren zati arau-emailea dekretu bidez onar zezan, eta foru-organo eskudunak onartutako gidalerro, irizpide eta jarraibide orokorrak ere eranskin gisa argitara zitzan.

Horrenbestez, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontsei-

la mediante Decreto 147/2002, de 18 de junio, actualmente en vigor.

Mediante Decreto 505/1995, de 5 de diciembre, y en cumplimiento de lo previsto en el artículo 8 del Decreto 275/1989, así como en el artículo 27 de Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza, se aprobó la parte normativa del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Urkiola, instrumento legal que ha de contener la normativa, regulaciones y criterios para la gestión del espacio protegido, normas para la ordenación de actividades y directrices para la ejecución de programas que desarrollen los objetivos concretos del mismo.

Tal y como establece el artículo 28 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, la vigencia de los planes rectores de uso y gestión es de cinco años, transcurridos los cuales deberán ser obligatoriamente revisados. En cumplimiento de las previsiones del citado artículo 28, procede efectuar una revisión del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Urkiola, siguiendo el procedimiento establecido en el artículo 29 de la citada norma para su elaboración y aprobación.

De conformidad con lo anterior, el Órgano Foral Gestor del Parque Natural elaboró un documento inicial, que en virtud de la Orden Foral 6232/2003, de 23 de octubre, fue sometido a informe de la Diputación Foral de Álava, de los ayuntamientos, de asociaciones representativas de intereses sociales de la zona y del Consejo Asesor de la Naturaleza del País Vasco-Naturzaintza, así como a información pública. Una vez consideradas las sugerencias y alegaciones presentadas, el documento fue aprobado por el Patronato del Parque Natural con fecha 5 de mayo de 2004. Posteriormente, el documento fue aprobado inicialmente por Diputación Foral de Bizkaia con fecha 25 de mayo de 2004 y por Diputación Foral de Álava con fecha 26 de julio de 2004.

Una vez otorgada su aprobación inicial, fue sometido a informes urbanísticos de los organismos competentes. Posteriormente, las Diputaciones Forales de Bizkaia y Álava aprueban definitivamente el Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Urkiola en reuniones de 23 de noviembre de 2004 y 22 de marzo de 2005. Con fecha 18 de noviembre de 2005 la Diputación Foral Bizkaia eleva el Plan Rector de Uso y Gestión de Urkiola al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio para la aprobación de su parte normativa por Decreto del Gobierno Vasco y la publicación como anexo al mismo de las directrices, criterios y pautas aprobadas por el órgano foral competente.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, y previa delibe-

luaren 2006ko maiatzaren 30eko bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Behin betiko onartzea Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planaren zati arau-emailea, Planaren 4.1.2, 4.2.2, 4.3.2, 4.4.2, 4.5.1.2, 4.5.2.2, 4.5.3.2, 4.5.4.2, 4.5.5.2, 4.5.6.2, 4.5.7.2, 4.5.8.2, 4.5.9.2, 4.5.12.2, 4.6.2, 4.7.2, 4.8.1.2, 4.8.2.2, 4.9 eta 6 idatz-zatietan jasotzen dena.

*2. artikulua.–* Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Plana osorik Dekretu honen eranskin gisa argitaratzea.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Abenduaren 5eko 505/1995 Dekretua, Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planaren zati arau-emailea onartzen duena, indargabetu da.

AZKEN XEDAPENA

Honako Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko maiatzaren 30ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ingurumen eta Lurralde
Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

ración y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 30 de mayo de 2006,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Aprobar definitivamente la parte normativa del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Urkiola contenida en los apartados 4.1.2, 4.2.2, 4.3.2, 4.4.2, 4.5.1.2, 4.5.2.2, 4.5.3.2, 4.5.4.2, 4.5.5.2, 4.5.6.2, 4.5.7.2, 4.5.8.2, 4.5.9.2, 4.5.12.2, 4.6.2, 4.7.2, 4.8.1.2, y 4.8.2.2, 4.9 y 6 del mismo.

*Artículo 2.–* Publicar, como anexo al presente Decreto, el texto íntegro del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Urkiola.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 505/1995, de 5 de diciembre, por el que se aprueba la parte normativa del Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Urkiola.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de mayo de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.

ERANSKINA, MAIATZAREN 30EKO 111/2006 DEKRETUAREN
URKIOLAKO PARKE NATURALAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ARAUTZEKO PLANA

1.– Aurrekariak.

1.1.– Legezko izendapena.

Eusko Jaurlaritza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eskatuta, Parke Natural izendatu zuen Urkiola, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 1990eko urtarrilaren 4an argitaraturiko abenduaren 29ko 275/1989 Dekretuaren bitartez. Izendapen hori Eremu Naturalen eta Basoko Landarediaren nahiz Faunaren Kontserbazioari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legeak eskainitako eremuaren barruan, eta eremu horri parke naturalen babes araubide berezia eman zitzaion.

Geroago, Eusko Jaurlaritzak, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eskaturik, Urkiolako Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana onetsi zuen 102/1994 Dekretuaren bidez; horrela, Urkiolako Parke Naturaleko baliabide naturalen plangintza eta kudeaketarako tresna eratu zen, Eremu Naturalen eta Basoko Landarediaren eta Faunaren Kontserbazioari 4/1989 Legean eta Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legean aurreikusitakoari dagokionez. Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenak 1997ko urriaren 24an emandako epaiak baliogabetzat adierazi zuen Baliabide Naturalak Antolatzeko Plan hori, eta horren aurka jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsoa onartu egin zuen. Horrenbestez, beste Antolaketa Plan bat prestatu eta hori ekainaren 18ko 147/2002 Dekretuaren bitartez onetsi zen (Euskal Herriko agintaritzaren aldizkarian 2002ko abuztuaren 9an argitaraturiko Dekretua).

Urkiolako Parke Naturalak halako parkeen legegintza mailako aukerak eta baldintzak ditu, eta gainera, natura 2000 sarearen barruan dago, 1997ko abenduan Elkarteko Leku Garrantzitsutzat (ES130009) izendatu zenetik, Habitaten Zuzentaraua dela bide (43/92/EE).

16/1994 Legeko jarraibideen arabera, Urkiolako Parke Naturalaren eskumenak honako hauek dituzte: alde batetik, Eusko Jaurlaritzak, eta horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Eremu Natural Babestuen Sarearen Erregistroaz nahiz izendapenaz eta Eremu Naturalak Antolatzeko Plana zein Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidariko Arauak onesteaz arduratzen da; bestetik, Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek, eta horiek Parkeko Organo Kudeatzailea osatzen dute. Horren eginkizunak 16/1994 Legeko VI. kapituluan zehaztuta daude.

1.2.– Erabili eta kudeatzeari buruzko plan gidariaren izaera eta ezaugarriak.

Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidaria funtsezko tresna bat da Parkea, indarrean dagoen bitartean,

ANEXO AL DECRETO 111/2006, DE 30 DE MAYO
PLAN RECTOR DE USO Y GESTIÓN DEL PARQUE NATURAL DE URKIOLA

1.– Antecedentes.

1.1.– Designación legal.

El Gobierno Vasco, a instancias del Departamento de Agricultura y Pesca, declaró el Parque Natural de Urkiola mediante el Decreto 275/1989, de 29 de diciembre, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco con fecha 4 de enero de 1990. Esta declaración se produjo dentro del marco que ofrece la Ley 4/1989, de 27 de marzo, de Conservación de los Espacios Naturales y de la Flora y la Fauna Silvestres, dotando a este espacio de un régimen de protección como parque natural.

Posteriormente, el Gobierno Vasco, a instancias del Departamento de Agricultura y Pesca, aprobó el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales de Urkiola mediante el Decreto 102/1994, constituyendo el instrumento de planificación y gestión de los recursos naturales del Parque Natural de Urkiola, a los efectos previstos en la Ley 4/1989, de Conservación de los Espacios Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres, y en la Ley 16/1994, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco. Este Plan de Ordenación de los Recursos Naturales fue declarado nulo por sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, de 24 de octubre de 1997, que estimó el recurso contencioso-administrativo interpuesto contra el mismo. Se elaboró, por tanto, un nuevo Plan de Ordenación que fue aprobado mediante Decreto 147/2002, de 18 de junio, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco con fecha 9 de agosto de 2002.

El Parque Natural de Urkiola se ve sujeto a las oportunidades y condicionantes legislativos que supone haber sido declarado Parque Natural, así como a su condición de integrante de la Red Natura 2000 mediante su designación como Lugar de Importancia Comunitaria (ES2130009) en diciembre de 1997, en virtud de la Directiva Hábitats (43/92/CE).

Siguiendo las directrices de la Ley 16/1994, las competencias sobre el Parque Natural de Urkiola se reparten entre el Gobierno Vasco -organismo encargado de la declaración, del Registro de la Red de Espacios Naturales Protegidos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de la aprobación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y de la parte normativa del Plan Rector de Uso y Gestión- y las diputaciones forales de Álava y Bizkaia, que conforman el Órgano Gestor del Parque. Sus funciones se especifican en el capítulo VI de la Ley 16/1994.

1.2.– Naturaleza y carácter del plan rector de uso y gestión.

El Plan Rector de Uso y Gestión es el instrumento básico de gestión del Parque durante su periodo de vi-

kudeatzeko. Bertan jasotzen dira kudeaketarako jarraibideak eta irizpideak, Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak ezarritako arauekin bat, eta Parkearen izendapena bultzatu zuten arrazoiek eskatzen dituzten gainerako erabakiak.

1.3.– Helburuak.

Urkiolako ingurua Parke Natural izendatzen duen abenduaren 29ko 275/1989 Dekretuaren 8. atalean xedatzen denez, hauek dira Urkiolako Parke Naturala Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidariaren helburuak:

a) Erabilerak eta jarduerak kudeatzeko arauak zehaztea eta garatzea. Baita baliabide naturalen kontserbazioa eta berreskuratzea ere eta babesturiko eremu naturalari dagozkion helburuak (naturaren interpretazioa, ingurune hezkuntza, eremu naturalaren erabilera eta gozamen erazkoa eta ikerketa) eta Parkearen eraginaren menpean bizi diren erkidegoen garapen sozio-ekonomikoa bermatzeko behar diren jarduketak definitzea ere.

b) Baliabide-mota bakoitza babesteko arau zehatzak zehaztea.

c) Parke Naturalaren barruan garatzen diren jarduera sozio-ekonomikoak arautuko dituzten xedapenak zehaztea.

d) Inguruaren babesa eta, bestaldetik, aisialdirako, atsedenerako eta heziketarako erabilera, bateragarri egin ditzakeen Erabilera Publikoko Plana gauzatzea.

e) Parke Naturalaren eta inguruaren artean harreman orekatsuak bultzatzen dituzten neurriak sustatzea.

1.4.– Edukia.

Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidari honek Antolamendu Planean jasotako xedapenak garatu eta gauzatzen ditu. Horretarako, hiru neurri-mota erabiltzen ditu.

a) Jarraibideak eta irizpideak. Xedapen hauek Parkeko zonaldeak, erabilerak eta jarduerak kudeatzeko estrategiak markatzen dituzte, Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidari honek irauten duen bitartean. Orokorrean, Parkeko Organo Kudeatzailearen jarduketak orientatzen dituzte.

b) Araupetzeak. Xedapen hauek Baliabide Naturalen Antolamendurako Planean ezarritako arauek garatzen dituzte, Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidari honek irauten duen bitartean. Batez ere Parkeko erabiltzaileei begira egiten dira.

c) Jarduketak. Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidariak irauten duen bitartean, aztertu edota gauzatu beharreko neurri zehatzak eta proiektuak.

Proposatzen diren jarduketak gauzatzeko eta planifikatzeko, lehentasunak ezartzen dira. Hona hemen sailkapena:

gencia. Contiene las directrices y criterios de gestión, de conformidad con las determinaciones normativas dispuestas en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y cuantas otras resulten necesarias de acuerdo con las finalidades que motivaron la declaración del espacio.

1.3.– Objetivos.

De acuerdo con el artículo 8 del Decreto 275/1989, de 29 de diciembre, de declaración del Parque Natural de Urkiola, el Plan Rector de Uso y Gestión persigue los siguientes objetivos:

a) Definir y desarrollar las normas de gestión de los usos y actividades, así como las actuaciones precisas a fin de asegurar el mantenimiento y la restauración de los recursos naturales para garantizar el cumplimiento de las finalidades propias del espacio natural protegido, tales como la interpretación de los fenómenos de la naturaleza, la educación ambiental, el uso y disfrute ordenado del espacio natural, la investigación y el desarrollo socioeconómico de las comunidades que viven en el Parque o en su entorno de influencia.

b) Definir la normativa específica de protección para cada tipo de recurso.

c) Definir las normas generales que regulen las actividades de carácter socioeconómico que se desarrollen dentro del Parque Natural.

d) Elaborar un Plan de Uso Público para la compatibilización de la protección de las diferentes zonas con su potencialidad como zona de educación, de esparcimiento y recreo.

e) Fomentar medidas que faciliten un marco armónico de relaciones entre el Parque y su entorno.

1.4.– Contenido.

El presente Plan Rector de Uso y Gestión desarrolla y pone en práctica las disposiciones del Plan de Ordenación, a través de tres tipos de medidas:

a) Directrices y criterios. Disposiciones que marcan las estrategias a seguir en la gestión de las distintas zonas, recursos, usos y actividades a lo largo de la vigencia del presente Plan Rector de Uso y Gestión. En general estas directrices y criterios están dirigidos a orientar las actuaciones del Órgano Gestor del Parque.

b) Regulaciones. Disposiciones cuyo fin es desarrollar las normas y limitaciones del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales, a lo largo de la vigencia del presente Plan Rector de Uso y Gestión. En general están destinadas a los distintos usuarios del Parque.

c) Actuaciones. Medidas concretas y proyectos a desarrollar o analizar a lo largo de la vigencia del presente Plan Rector de Uso y Gestión.

Con el fin de programar y planificar la puesta en práctica de las actuaciones propuestas, se valora su prioridad. Para ello, se sigue la siguiente clasificación:

• Presazkoak. Lehentasuneko jarduketak, Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidaria argitaratu eta urtebete igaro baino lehen egin beharrekoak.

• Beharrezkoak. Parkearen kudeaketako arazo korapilatsuak konpontzeko Plana indarrean dagoen artean edota aldiro egin beharreko jarduketak.

• Komenigarriak. Aurrekoek gomendatutako jarduketa osagarriak. Ez dira zertan gauzatu Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidariaren indarraldian.

• Baldintzapekoak. Epe laburrean egin beharrekotzat jotzen ez diren jarduketak; dena den, behar adinako pisua duten kausak agertzen direnean haiek gauzatzeko neurriak aurreikusi behar dira.

1.5.– Eremua aukeratzeko irizpideak.

Urkiolako Parke Naturala Euskal Autonomia Erkidegoko Eremu Natural babestuen Sarean sartzeko aukeratu zen, bertako ezaugarri natural bikainak, baliabide natural garrantzitsuak eta horien kontserbazioaren garrantzia kontuan hartuta. Parke naturalak, izatez, gizakiaren ustiakuntzak eta okupazioak nabarmen aldatu gabeko eremuak dira, eta erraz identifikatzen dira euren paisaien edertasunaren, ekosistemen adierazgarritasunaren edo landarediaren, faunaren zein eraketa geomorfologikoen eraginez; gainera, agintari publikoen lehentasunezko jarduketa berenganatzen dute, bertako baliabide naturalen sentsuzko ustiakuntza eta erabilera publikoa balio ekologikoen, estetikoen edo hezkuntzakoen kontserbazioarekin edo suspertzearekin bateratu ahal izateko.

Eremu horren kudeaketa lagungarria izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Eremu Natural Babestuen Sarearen helburu nagusiak lortzeko, hau da, kudeaketako sistema orokorrak koordinatzea, eremu natural babestuak modu homogeneoan eta bateratuan sustatzea, eremu naturalak zein basoko bizitza kontserbatzeko estatuko nahiz nazioarteko programetan laguntzea eta natura babesteko beste sare edo sistema batzuekiko informazio trukea ahalbidetzea.

Halaber, Urkiola Parke Naturalaren antolaketak honako helburu hauek ditu (Baliabide Naturalak Antolatzeko Planean adierazitakoak): biztanleek Urkiolako baliabide naturalak sentsuz erabiltzea, ekosistema naturalen nahiz paisaiaren aniztasuna eta berezitasuna zaintzea, Parkearen interes geologikoko eremuak babestea, funtsezko prozesu ekologikoak eta landaredi nahiz fauna espezieen habitatak kontserbatzea eta ondare naturalaren produkzio gaitasuna mantentzea.

Orain arte Euskal Autonomia Erkidegoko Eremu Natural Babestuen Sarean zazpi parke natural sartu dira.

• Urgentes. Actuaciones prioritarias, que deberán ser llevadas a cabo en un plazo máximo de un año a partir de la publicación del presente Plan Rector de Uso y Gestión.

• Necesarias. Actuaciones destinadas a solucionar aspectos problemáticos de la gestión del Parque, a realizar en el plazo de vigencia del presente Plan de Gestión o de forma periódica.

• Convenientes. Actuaciones aconsejadas y complementarias de las anteriores, aunque su cumplimiento no tiene por qué ser realizado a lo largo del periodo de vigencia del Plan Rector de Uso y Gestión.

• Condicionadas. Actuaciones que, se estima, no son necesarias a corto plazo, aunque su cumplimiento debe estar previsto cuando aparezca en el tiempo la causa que motive su realización.

1.5.– Criterios de selección del espacio.

El Parque Natural de Urkiola fue seleccionado para su inclusión en la Red de Espacios Naturales Protegidos de la Comunidad Autónoma del País Vasco en función de sus sobresalientes características naturales, de la importancia de los recursos naturales que alberga y de la relevancia de la conservación de éstos. Los parques naturales son áreas no transformadas sensiblemente por la explotación u ocupación humana, identificables por la belleza de sus paisajes la representatividad de sus ecosistemas o la singularidad de su flora, de su fauna o de sus formaciones geomorfológicas y que requieren de una actuación preferente de los poderes públicos, a fin de hacer compatible el aprovechamiento ordenado de sus recursos naturales y el uso público con la conservación o recuperación de sus valores ecológicos, estéticos o educativos.

La gestión de este espacio deberá contribuir a la consecución de los objetivos fundamentales de la Red de Espacios Naturales Protegidos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que son coordinar los sistemas generales de gestión, promocionar los espacios naturales protegidos de forma homogénea y conjunta, colaborar en programas estatales e internacionales de conservación de espacios naturales y de la vida silvestre y posibilitar el intercambio de información con otras redes o sistemas de protección de la naturaleza.

Asimismo, la ordenación del Parque Natural de Urkiola tiene los siguientes objetivos, especificados en su Plan de Ordenación de los Recursos Naturales: la utilización ordenada de los recursos naturales de Urkiola por la población, la preservación de la variedad y singularidad de los ecosistemas naturales y del paisaje, la protección de las áreas de interés geológico del Parque, el mantenimiento de los procesos ecológicos esenciales, de los hábitats de las especies de flora y fauna y de la capacidad productiva del patrimonio natural.

Hasta la fecha, siete parques naturales se han incluido en la Red de Espacios Naturales Protegidos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

| Izendaturiko Parke Naturalak<br>*Parques naturales declarados* | Lurraldea<br>*Territorio* |
|---|---|
| Urkiola | Araba eta Bizkaia / *Álava y Bizkaia* |
| Gorbeia | Araba eta Bizkaia / *Álava y Bizkaia* |
| Valderejo | Araba/*Álava* |
| Izki | Araba/*Álava* |
| Aralar | Gipuzkoa |
| Aiako Harria | Gipuzkoa |
| Pagoeta | Gipuzkoa |

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila
*Fuente: Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco*

Euskal Autonomia Erkidegoan orain arte izendaturiko Parke Naturalik gehienak, izan ere, sektore errupikolak, basokoak eta larrediak dituzten mendiko eremuak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan, bestalde, babesa merezi duten elementu naturalak aztertzeko eta geografian kokatzeko aukera ematen duten oinarrizko ikerketa batzuk daude (elementuok eremu babestuetan sartzen dira): ekosistema ahulak, arriskuan dauden espezieen habitatak, kontserbazio egoera oneko basoak, etab. Ikerketa horietarik gehienak kokapen geografiko jakina dute eta, horrenbestez, informazio geografikoko sistema batean ikusteko modukoak dira.

1.6.– Parkeko aldeak.

Parke Naturalaren antolamendurako planean egiten den zona-banaketan ondoko alde hauek bereizten dira:

a) Babes bereziko aldea.

Kontserbazioari begira, interes handia duten aldeak dira, landaredia, fauna, geomorfologia edota paisaiaren ezaugarriengatik eta bertan gutxi antzaldatu diren ekosistemak daudelako. Oro har, alde malkar eta erripatsuak dira.

Bi aldetan banatzen da; batak Untzilatx-Anboto-Zabalandi-Arangio mendi-lerro kare-harrizkoa, bertako mendi-bularrik malkartsuenak eta parkearen hego-ekialdeko alderdia hartzen ditu bere baitan. Inguru horretan nabarmentzekoak dira Durangaldeko gailurrak (paisaia bikaina eta landaredia eta fauna bereziak direla medio) eta pagadi zabalak.

Bestea Neberazarra eta Erreiletabasoko mazeletatik luzatzen da, hegoalderantz jaisten da Iturriotzeraino eta hego-mendebalderantz aurreratzen da ipar-mendebaldeko muturrean dagoen alde karstikoaren inguruetara, Mugarrako tontorra barne. Azpimarratzekoak dira landare-multzo batzuk, Mugarrako hegaztiak eta alde osoaren edertasuna.

b) Harrera aldea.

La mayor parte de los Parques Naturales declarados en el País Vasco hasta la fecha son áreas de montaña que albergan sectores rupícolas, forestales y pastizales.

Existen una serie de estudios de base, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que permiten analizar y situar geográficamente aquellos elementos naturales merecedores de protección a través de su inclusión en un espacio protegido: ecosistemas frágiles, hábitats de especies amenazadas, bosques en buen estado de conservación, etc. La mayoría de estos estudios están georreferenciados, y por tanto pueden ser visualizados en un sistema de información geográfica.

1.6.– Zonificación del parque.

En el Plan de Ordenación se realiza una sectorización del Parque Natural, distinguiéndose las siguientes zonas:

a) Zona de especial protección.

Constituyen zonas de elevado interés para la conservación por las características de la vegetación, la fauna, la geomorfología y/o el paisaje y la presencia de ecosistemas poco transformados. Se trata, en general, de áreas abruptas con grandes pendientes.

Comprende dos sectores, el primero de los cuales abarca las áreas del cresterío calizo comprendidas en la alineación Untzillatx–Anboto–Zabalandi–Arangio, las más abruptas de sus estribaciones y toda la parte sudoriental del Parque, donde cabe destacar las crestas del Duranguesado (de gran relevancia paisajística, y con una flora y fauna singular) y las extensas masas de hayedos.

El segundo se extiende por las laderas del Neberazarra y Errelletabaso, baja por el Sur hasta Iturrioz y avanza en dirección NW hasta las inmediaciones de la zona kárstica ubicada en el extremo noroccidental, englobando el pico Mugarra. Destacan algunas formaciones vegetales de interés, así como la gran importancia de la avifauna asentada en el Mugarra y el alto valor paisajístico de la zona.

b) Zona de acogida.

Urkiolako Santutegia eta bere inguruak, eta Urkiolako mendatetik Erreketeganarako tartean errepidearen ondoan kokatzen diren ekosistemak biltzen ditu alde honek. Oso inguru baliotsua da kultura eta paisaiaren aldetik; horrez gain, natur balio handi samarra du, ekosistema aipagarri batzuk biltzen baititu. Bisitari ugari bildu ohi da bertara.

c) Basozaintza eta abeltzaintzako aldea.

Alde hau Mañaria-Otxandio errepidearen alde bietara zabaltzen da, eta Iñunganaxpe eta Artaungo lurrak hartzen ditu bere baitan. Basozaintza eta abeltzaintzarako produktibitate altu edo ertaina duten lurrak dira eta adierazitako erabilera horiek eraldatutako aldeak dira nagusi.

d) Abeltzaintza berrezartzeko aldea.

Parkearen ipar-mendebaldeko muturrean dago, Aramotzetik Mugarrako haitzaren inguruetaraino. Lurralde hau, batez ere, harritsu eta altua izateagatik bereizten da eta erakuntza karstiko berezi samarra dauka. Lurralde honetan dagoen landaredia larrakitua larratzearen bidez aprobetxatzen da eta natur baldintzek alde batzuetan orain dagoena ez den beste edozein landarediren garapena mugatzen dute.

e) Inguruko babes aldea.

Parke Naturalaren inguruko 100 metroko perimetro-zerrenda da. Baserri guneak eta industri lurzoruak zona horretatik kanpo gelditzen dira. Hain zuzen ere, gunetik kanpo daude Artaungo gunea Diman, Urkuletako gunea Mañarin eta San Lorentzo baselizaren inguruan finkaturiko industri lurzoruko zona Mañarin.

Zona horietariko bakoitzean, bestalde, helburuak, antolaketa irizpideak eta arau bereziak aplikatzen dira, Urkiolako Parke Naturala Antolatzeko Planean jasotakoak.

2.– Eremuaren deskripzioa.

I.– Informazio orokorra.

2.1.– Kokaera eta mugak.

Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidari honen ezarpen eremua Urkiolako Parke Naturala da. Eremu horren mugak Urkiolako Parke Naturaleko Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana onetsi duen ekainaren 18ko 407/2002 Dekretuko I. eta II. eranskinetan finkatu dira. Bi eremu ditu. Barrukoan Parke Natural izendaturiko lurrak sartzen dira, eta kanpokoa barrukoaren inguruko 100 metroko perimetro-zerrendak osatzen du, Baserri Gune eta Industri Lurzoru izendaturiko lurzoruak izan ezik, eta Parke Naturalaren kanpoaldeko zona osatzen du.

Urkiolako Parke Naturala Araba eta Bizkaiko lurralde historikoen ekialdeko mugan dago. Aramotzeko mendizerrak, Durangaldeko mendiek eta Arangioko mendizerrak osatzen dute, guztiak isurialde atlantikoa eta mediterraneoa banatzen dituen lerroko mendiak.

Área que comprende el Santuario de Urkiola y sus inmediaciones y ecosistemas, situados junto a la carretera en el tramo comprendido entre el Puerto de Urkiola y el alto de Erreketegana. Sector de alto interés cultural, paisajístico y valor naturalístico considerable por englobar algunos ecosistemas representativos, con enorme tradición de afluencia y concentración de visitantes.

c) Zona forestal-ganadera.

Esta zona se extiende a ambos lados de la carretera Mañaria–Otxandio, e incluye los terrenos de las áreas de Iñunganaxpe y Artaun. Se trata de terrenos con valor productivo alto o medio para los usos forestal y ganadero, predominando zonas transformadas por los usos mencionados.

d) Zona de restauración ganadera.

Se ubica en el extremo noroccidental del Parque, extendiéndose desde Aramotz hasta las inmediaciones del pico Mugarra. La característica fundamental de este territorio radica en sus condiciones de pedregosidad y altitud; incluye una formación kárstica de singularidad notable. La vegetación rala existente en este sector se aprovecha mediante pastoreo. Las condiciones naturales limitan el desarrollo de cualquier otro tipo de vegetación que la ya existente en algunas zonas.

e) Zona periférica de protección.

Consiste en una banda perimetral de 100 metros alrededor del Parque Natural. Se excluyen de esta zona los núcleos rurales y los suelos industriales. Concretamente, quedan fuera el núcleo de Artaun en Dima, el núcleo de Urkuleta en Mañaria, y la zona de suelo industrial consolidado del entorno de la ermita de San Lorenzo, también en Mañaria.

En cada una de estas zonas se aplican objetivos, criterios de ordenación y normativa particulares, recogidos en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales de Urkiola.

2.– Descripción del espacio.

I.– Información general.

2.1.– Localización y delimitación.

El ámbito de aplicación del presente Plan Rector de Uso y Gestión es el Parque Natural de Urkiola, cuya delimitación figura en los anexos I y II del Decreto 407/2002, de 18 de junio, por el que se aprueba el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales de Urkiola. Consta de dos áreas. La interna corresponde a los terrenos propiamente designados como Parque Natural, y la externa consiste en una banda perimetral de 100 metros alrededor de la interna, excluyendo los suelos designados como Núcleo Rural y Suelo Industrial, y constituye la zona periférica del Parque Natural.

El Parque Natural de Urkiola está situado entre los Territorios Históricos de Álava y Bizkaia. Está constituido por las sierras de Aramotz, montes del Duranguesado y Sierra de Arangio, montañas de la divisoria de aguas cántabro-mediterránea.

Bere zabalera 5.958,3 ha-koa da eta perimetroa 83,2 km-koa. Bi punturen arteko gehieneko tartea 20,5 km-koa da, ipar-mendebaldeko mugatik (Aramotz) hego-ekialdeko mugara (Tellamendi) dagoen tartea, alegia. Gunerik garaiena Anboto da (1.330 m) eta baxuena Zallobenta (240 m); lur gehienak 600 metrotik gora daude.

Urkiolako Parke Naturaleko lurrak zortzi udalerrirenak dira. Azalera honela banatzen da:

Tiene una extensión de 5.958,3 ha y un perímetro de 83,2 km. La máxima distancia entre dos puntos es de 20,5 km, que corresponde a la separación entre el límite noroeste (Aramotz) y el sudeste (Tellamendi). La altitud máxima corresponde al Anboto con 1.330 m y la mínima a Zallobenta con 240 m, si bien la mayor parte del territorio se encuentra a una altitud superior a los 600 m.

El territorio del Parque Natural de Urkiola pertenece a ocho municipios, siendo la superficie correspondiente a cada uno la siguiente:

| Udal mugarteen arabera antolaturiko azalera<br>*Superficie ordenada por términos municipales* | | Eremua (ha)<br>*Area (ha)* | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Lurraldea<br>*Territorio* | Udalerria<br>*Municipio* | Parke Naturala<br>*Parque Natural* | Inguruko Zona<br>*Zona periférica* | Guzt.<br>*Total* | % |
| Araba/*Álava* | Aramaio | 857 | 236 | 1.093 | 16,17 |
| Araba guztira / *Álava total* | | 857 | 236 | 1.093 | 16,17 |
| Bizkaia | Abadiño | 1.454 | 53 | 1.507 | 22,3 |
| | Amorebieta-Etxano | 99 | 51 | 150 | 2,22 |
| | Atxondo | 613 | 80 | 693 | 10,25 |
| | Dima | 1.498 | 208 | 1.706 | 25,24 |
| | Durango | 108 | 30 | 138 | 2,04 |
| | Igorre | 0 | 15 | 15 | 0,22 |
| | Izurtza | 50 | 10 | 60 | 0,89 |
| | Lemoa | 0 | 1 | 1 | 0,01 |
| | Mañaria | 1.279 | 117 | 1.396 | 20,66 |
| Bizkaia guztira / *Bizkaia total* | | 5.101 | 564 | 5.665 | 83,83 |
| Guztira/*Total* | | 5.958 | 800 | 6.758 | 100 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

*Fuente: Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco*

2.2.– Estatusa eta legezko eskubideak.

2.2.1.– Jabetza.

Urkiolako Parke Naturalean hainbat jabetza publiko eta pribatu mota daude basoei dagokienez. Izan ere, badira udal batzuen herri onurako mendiak, toki-erakundeen disposizio libreko mendiak, partikularren lurrak (norbanakoenak edo elkarteenak), selak eta, azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak berriki erositako mendiak. Hedaduraz ere oso ezberdinak dira jabetzak; esaterako, hektarea bat dutenak eta 911 ha duen Abadiñoko 18 zenbakiko herri onurako mendia. Jabetza motaren arabera honela banatzen da azalera:

2.2.– Estatus y derechos legales.

2.2.1.– Propiedad.

En el Parque Natural de Urkiola coexisten distintos tipos de propiedad pública y particular en las masas forestales, dado que existen montes de utilidad pública de distintos ayuntamientos, montes de libre disposición de entidades locales, terrenos de particulares (individuales o en agrupación), seles y, por último, montes recientemente adquiridos por la Diputación Foral de Bizkaia. La extensión de las propiedades es muy variable, con las menores de apenas una hectárea y otras, como el Monte de Utilidad Pública n.º 18 de Abadiño, con 911 ha. En la siguiente tabla se señalan las superficies, según tipos de propiedad:

| | Titularitate publikoa<br>*Titularidad pública* | | | Titularitate pribatua<br>*Titularidad privada* |
|---|---|---|---|---|
| | EPko mendiak<br>*Montes de UP* | Erabilera askea<br>*Libre disposición* | Guztira<br>*Total* | |
| Azalera (ha)<br>*Superficie (ha)* | 1.695 | 365 | 2.060 | 3.898 |
| Ehunekoa (%)<br>*Porcentaje (%)* | 28,5 | 6,1 | 34,6 | 65,4 |

Iturria: Urkiolako Parke Naturalaren katastroa

*Fuente: Catastro del Parque Natural de Urkiola*

Eremu horren kudeaketa hasi zuenetik, Bizkaiko Foru Aldundiak landaredi autoktonoko 138 ha. Eskuratu ditu, hori babestu ahal izateko.

2.2.2.– Legezko eskubideak.

Urkiolako Parke Naturalean eragina duen legezko bermeen araubidea 147/2002 Dekretuaren bitartez onetsitako Baliabide Naturalak Antolatzeko Planeko 0.2 atalean ezarrita dago.

2.2.3.– Beste plan eta ekimen batzuekiko bateragarritasuna.

Urkiolako Parke Naturalaren lurraldea kontuan hartzen duen beste edozein plan, egon ere, Baliabide Naturalak Antolatzeko Planeko eta Erabili eta Kudeatzeri buruzko Plan Gidariko arauen menpe egongo da. Kontraesanik egotekotan, azken horien xedapenak nagusituko dira.

Parke Naturalaren Organo Kudeatzaileen eskumenekoak ez diren jarraibideak edo jarduketak, batez ere ekimen pribatuak eta udalerrikoak, Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidarian sartu dira, Parke Naturalaren helburuak errazago lortu ahal izateko.

2.3.– Kudeaketa.

2.3.1.– Organo kudeatzaile.

Nekazaritzako jarduketa sektorialetara lotutako administrazio jarduera Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren eta Arabako Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurumen Sailaren bitartez egingo da, horiexek baitira parkearen Organo Kudeatzaileak. Euren jarduerak zuzendari-artatzaileak koordinatzen ditu, 275/1989 Dekretuko 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.3.2.– Patronatua.

Parkearen Organo Kudeatzaileak organo aholkulari eta laguntzaile berezia izango du, Patronatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeari buruzko 16/1994 Legean ezartzen denez. Patronatuaren eginkizunak lege horretan adierazita daude. Urkiolako Par-

Desde el comienzo de la gestión de este espacio, la Diputación Foral de Bizkaia ha adquirido 138 ha de vegetación autóctona con el fin de protegerlas.

2.2.2.– Derechos legales.

El régimen de garantías legales que afecta al Parque Natural de Urkiola se establece en el apartado 0.2 del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales, aprobado mediante Decreto 147/2002.

2.2.3.– Compatibilización con otros planes e iniciativas.

Cualquier otro plan que incluya al territorio del Parque Natural de Urkiola estará subordinado a la normativa especificada en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y en el presente Plan Rector de Uso y Gestión. En caso de existir contradicción, serán las disposiciones de estos últimos las que prevalezcan sobre el resto.

Otras directrices o actuaciones que competencialmente no correspondan al Órgano Gestor del Parque Natural, principalmente iniciativas privadas y municipales, se han incluido en este Plan Rector de Uso y Gestión al favorecer la consecución de los objetivos del Parque Natural.

2.3.– Gestión.

2.3.1.– Órgano Gestor.

La actividad administrativa ligada a las actuaciones sectoriales agrarias se hará a través de los Departamentos de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia, y de Urbanismo y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, que constituyen el Órgano Gestor del Parque. Sus actividades serán coordinadas por el director-conservador, de acuerdo con el artículo 11 del Decreto 275/1989.

2.3.2.– Patronato.

El Órgano Gestor del Parque tendrá asociado un órgano asesor y colaborador propio, el Patronato, según la ley 16/1994 de Conservación de la Naturaleza del País Vasco. Las funciones del Patronato se especifican en la citada ley. En el Parque Natural de Urkiola, la

ke Naturalean, Patronatuaren osaketa eta funtzionamendua 275/1989 Dekretuko 9. artikuluan ezarrita daude.

2.3.3.– Parke Naturalari atxikitako instalazioak.

Gaur egun, funtzionamenduan dabiltza Toki-Alai deritzon interpretazio nahiz harrera zentroa (Urkiolako gainean, Santutegiaren ondoan) eta Letona-Korta Zentroa (Sel deritzonaren erdian).

II.– Ezaugarri fisikoak.

2.4.– Klima.

Urkiolako Parke Naturala isurialde biak banatzen dituzten mendien lerroan dago, Bizkaiko klima atlantiko ekialdekotik Araba gehieneko klima mediterraneo kontinentalera bitartekoa da. Aldaketa hori ez da batbatean gauzatzen, apurka-apurka baizik.

Mendiek pantaila klimatiko gisa jokatzen dute eta ondorioz urtean zehar euri asko egiten du, 1.500 mm urtean batez beste. Horren eraginez onbrotipoak hezeak eta oso hezeak dira. Uda sasoian nahikoa murrizten dira prezipitazioak. Maila plubiometrikorik gorena urtarrilean izan ohi da.

Klima epel ozeanikoan tenperatura leunak daude, itsasoaren eraginak are gehiago leundutako tenperaturak, eta urteko batez bestekoa 11 ºC-koa da (15 ºC-ko gehienekoa eta 7 ºC-ko gutxienekoa). Altitudearen desberdintasunek, berriz, mota termiko mesoepela (600 m-tik behera) eta supraepela (altitude horretatik gorakoa) bereizteko aukera ematen dute.

Hegoaldeko isurialdean iparraldekoan baino lehortasun handiagoa dago, klima apur bat kontinentalagoa eta mediterraneoagoa izatearen ondorioz.

2.5.– Geologia eta geomorfologia.

Inguru honetako materialak, gehien bat, buztinak, harearriak eta kare-harriak dira. Guztiak Behe Kretazikokoak dira, Kuaternarioko estaldurak izan ezik, eta serie bakoitza maila kronologiko batí dagokio.

Mendilerro nagusienak ia ehun metroko lodiera duten kare-harrizko multzo handiez osatuta daude. Ugariak dira dolinak eta haitzuloak, kare-harria disolbatzearen ondorioz sortutakoak.

Kuaternarioko estaldurak lodiera txikiko sedimentuak dira eta honako lekuetan azaltzen dira: zoru alubialak, mendi-hegaleko higakinak, erreken garraiatzeak; eta zohikaztegiak, lohi-guneak eta buztin-lurrak. Parkea Bizkaiko antiklinorioaren barruan dago eta bertako haustura nabarmenena Urkiolako faila da. Faila hau grabitate erakoa da eta alderik alde zeharkatzen du eremua, Anboto eta Aramotz mendizerrak hego-mendebaletik inguratuz.

composición y funcionamiento del Patronato se establecieron en el artículo 9 del Decreto 275/1989.

2.3.3.– Instalaciones adscritas al Parque Natural.

En la actualidad funcionan el centro de interpretación y acogida Toki-Alai, situado en el alto de Urkiola, junto al Santuario, y el centro de Letona-Korta, situado en el centro del Sel.

II.– Características físicas.

2.4.– Climatología.

El Parque Natural de Urkiola se encuadra en las montañas de la divisoria de aguas cántabro-mediterránea, sometidas a un régimen climático determinado por las perturbaciones procedentes del Atlántico Norte, y que señalan la transición entre el clima cantábrico oriental de Bizkaia y el mediterráneo continentalizado de la mayor parte de Álava.

Las montañas actúan como una pantalla climática, causando elevadas precipitaciones repartidas a lo largo del año, con una media de 1.500 mm anuales que determinan unos ombrotipos húmedo e hiperhúmedo. Los meses estivales sufren un moderado descenso en cuanto a precipitaciones. El máximo pluviométrico se registra en enero.

El clima de tipo templado oceánico posibilita la existencia de temperaturas suaves, dulcificadas por la influencia marina, con una media anual de 11 ºC (15 ºC de media máxima y 7 ºC de media mínima). Las diferencias de altitud permiten distinguir el termotipo mesotemplado (por debajo de los 600 m) y el supratemplado (por encima de esta altitud).

En la vertiente sur se detecta mayor aridez que en la norte, propiciada por la leve continentalización y mediterraneización del clima.

2.5.– Geología y geomorfología.

Los materiales que dominan la zona son arcillas, areniscas y calizas. Exceptuando los recubrimientos cuaternarios, todos los materiales son del Cretácico inferior, correspondiendo cada serie a un nivel cronológico distinto.

Las alineaciones montañosas más importantes están formadas por calizas masivas en un paquete de casi un centenar de metros de espesor. Estos macizos muestran los característicos signos de disolución en forma de dolinas y cavernas.

Los recubrimientos cuaternarios son sedimentos de poco espesor, siendo suelos aluviales, derrubios de ladera, acarreos fluviales y turberas, fangos y arcillas. La zona está incluida dentro del anticlinorio vizcaíno, presentando como fractura más importante la falla de Urkiola, que es una falla de gravedad que atraviesa por completo el área bordeando por el sudoeste las sierras de Anboto y Aramotz.

2.6.– Edafologia.

Urkiolako Parke Naturaleko lurzoruek gabezia hidriko txikia edo deuseza dute aldi begetatiboan, eta gainerako urtaroetan ur gehiegi dute; horren eraginez, kare-harriaren gainean dauden lurzoruek kaltzioa galtzen dute. Parkearen barruko lurzoru mota nagusiak honako hauek dira:

– akrisolak.

– kanbisolak.

– litosolak.

– rankerra.

– rendzinak.

Haitzetan dauden lurzoruen (litosolak) sakonera txikia eta horizonte urriak kontrajarri egiten zaizkie garatuenei, eta azken horiek haranetan eta sakonunetan daude.

Eremuaren erabilera antropiko handiaren (zapaltzea, ibilgailuak igarotzea, etab.) eta zonako malden zein isurketaren eraginez, lurzoruek aldaketa handia izan dute euren baldintza naturalei dagokienez; nabarmen trinkotu eta higadura arrisku askoz ere handiagoa dute.

2.7.– Hidrologia eta hidrogeologia.

2.7.1.– Hidrogeologia.

Urkiolako Parke Naturalaren lurraldea Aramotzeko unitate hidrogeologikoan dago, eta hori, parkean bertan ez ezik, Udalaitz mendigunera eta Ilunbe-Indusoko zonara (Dimako udalerria) ere hedatzen da. Arrezifeko kare-harriek, kalkaneritazko sortek eta material solteek iragazkortasun handia dute. Batez ere, haitz nagusietan eta Aramotz mendi-lerroan kokaturik daude.

Karga prezipitazioen bidez egiten da batik bat, eta horiek batzuetan elurrezkoak izaten dira; deskarga, berriz, surgentzien bidezkoa da gehienetan, eta, neurri txikiagoan, ubideetara egiten da zuzen-zuzen. Akuifero karstikoak direnez, sugentziek aldaketa handiak dituzte, segundoko litro gutxi batzuetako agorraldiarekin eta segundoko zenbait metro kubikoko gehienekoekin.

Sektore karbonatatu desberdinetako urek kaltziozko Facies bikarbonatatu nabaria dute, eta mineralizazio txikiagoa ere bai, gehienetan 350 mg/l-koa. Hala eta guztiz ere, mineralizazioa karbonozko beste eraketa urgoniarrekoa (adibidez, Itxina) baino handiagoa da. Horrek, berriz, unitateko kare-harrien karstifikazio funtzional txikiagoa adierazten du, jarioak motelagoak dira eta disolbatzeko aukera handiagoak dituzte.

Parkeko lurraldean bi azpi-unitate identifikatzen dira, Aramotz-Anboto eta Eskuagatx; lehenengoan bi sektore daude, Aramotz eta Anboto. Parke Naturalean ko-

2.6.– Edafología.

Los suelos del Parque Natural de Urkiola se encuentran afectados por un leve o nulo déficit hídrico durante el período vegetativo y por el exceso de agua durante el resto del año, lo que provoca la descalcificación de los suelos que se hallan sobre roca caliza. Los principales tipos de suelo que se encuentran en el interior del Parque son:

– acrisoles.

– cambisoles.

– litosoles.

– ranker.

– rendzinas.

La poca profundidad y escasos horizontes de los suelos que se encuentran en los roquedos (litosoles) contrastan con los más desarrollados, que ocupan los fondos de los valles y depresiones.

| “ | Iturburua/*Manantial* | <1 | – |
| “ | “ | <1 | – |
| Ugario | “ | 1-10 | Ugariotza |
| Emaldi | “ | <1 | Emaldi |
| “ | “ | <1 | – |
| “ | “ | <1 | – |
| “ | “ | <1 | – |
| Oba Goikoa | “ | <1 | Hurbileko baserriak / *Caseríos próximos* |
| Oba Bekoa | “ | <1 | Hurbileko baserriak / *Caseríos próximos* |
| Erleabe | “ | <1 | Izurtza-Mañaria |
| “ | Sarbegia/*Sumidero* | – | – |
| Bitaño | Iturburua/*Manantial* | <1 | Bitaño |
| “ | “ | <1 | – |

| Izena<br>*Denominación* | Izaera<br>*Naturaleza* | Emari (l/s)<br>*Caudal (l/s)* | Horniketa<br>*Abastecimiento* |
|---|---|---|---|
| Mañaria-C | Zundaketa/*Sondeo* | 15 | Durangoko Merinaldea / *Merindad Durango* |
| Iturrieta | Iturburua/*Manantial* | >10 | |
| Mañaria-A | Zundaketa/*Sondeo* | 125 | |
| Markue | Iturburua/*Manantial* | >10 | |
| Markue-2 | “ | >10 | |
| Mutxate | Iturburua/*Manantial* | >10 | Mañaria |
| Mañaria-B | Zundaketa/*Sondeo* | 80 | Durangoko Merinaldea / *Merindad Durango* |
| Zallobenta | Iturburua/*Manantial* | >10 | Izurtza |
| Zallobenta-2 | “ | 1-10 | – |
| Mañaria-D | Zundaketa/*Sondeo* | 60 | – |
| « | Sarbegia/*Sumidero* | – | Durangoko Merinaldea / *Merindad Durango* |
| Iturbe | Iturburua/*Manantial* | <1 | Hurbileko baserriak / *Caseríos próximos* |
| Baltzola | “ | <1 | Harrobia/*Cantera* |
| « | Sarbegia/*Sumidero* | – | Durangoko Merinaldea / *Merindad Durango* |
| Jentilzubi | Iturburua/*Manantial* | 1-10 | – |
| Zamakola | “ | <1 | Hurbileko baserriak / *Caseríos próximos* |
| Angilarri | “ | 1-10 | Hurbileko baserriak / *Caseríos próximos* |
| « | Sarbegia/*Sumidero* | – | – |
| « | Iturburua/*Manantial* | <1 | – |
| « | Sarbegia/*Sumidero* | – | Hurbileko baserriak / *Caseríos próximos* |
| « | Iturburua/*Manantial* | <1 | – |
| Tximerrota | “ | <1 | – |
| Arrizurri | “ | <1 | – |
| Urmeta | “ | 1-10 | – |
| Kaixa | “ | <1 | Hurbileko txabolak / *Bordas próximas* |
| Urkuleta | Iturburua/*Manantial* | 1-10 | Mañaria |
| Iturriotz | “ | <1 | – |
| Sakonandia | “ | <1 | – |
| Karbista | “ | <1 | – |
| Ansarrutxeta | “ | <1 | – |
| Dantzaleku | “ | <1 | – |
| Korostabe | “ | <1 | – |
| Zabalandi | “ | <1 | Hurbileko baserria / *Caserío próximo* |
| Iturrigorri | “ | <1 | – |
| Santutxu | “ | <1 | – |
| Anboto | Iturburua/*Manantial* | <1 | – |
| Pol-pol | “ | <1 | – |
| Leiroki | “ | <1 | – |
| Atxin | “ | <1 | – |
| Urtxillo | “ | >10 | – |
| Ibarre | “ | <1 | Apatamonasterio |
| – | “ | <1 | Arrazola |
| Iturrigorri | “ | 1-10 | Otxandiano |
| Etxaguen | “ | 1-10 | Aramaiona-Etxaguen |
| Etxaguen-2 | “ | <1 | Etxaguen |
| Salvatierra | “ | 1-10 | Oleta |
| Santa Marina | “ | <1 | Oleta |

Iturria: Urkiolako Parke Naturalaren ezaugarri hidrologikoak
*Fuente: Caracterización hidrobiológica del Parque Natural de Urkiola*

Aipatutako gune batzuk Parketik kanpo egon arren, taulan sartu dira, unitate akuifero berekoak direlako. Aipagarriak dira zona karstikoko surgentziak, arrezifezko kare-harriak deskargatzeko iturburu ugarirekin.

Aunque algunos de los puntos mencionados se encuentren en realidad fuera del Parque, se han incluido en la tabla por pertenecer a la misma unidad acuífera. Destacan las surgencias en la zona kárstica, con numerosos manantiales donde descargan las calizas arrecifales.

Urkiolan urari lotutako perturbazio nagusiak honako hauek dira:

– Kutsadura guneak egotea, batez ere abereak abere-azpiegituretan pilatzearen eta jatorri antropikoa duten hondakin solidoen zein likidoen eraginez. Urkiolako arroan eta Mugarrako, Pol-Poleko eta Zabalandiko larreetan ongarriak erabiltzen dira.

– Hondakin solidoak astero biltzen dira atsedenlekuetan, eta BI-623 errepidean ere aldian behin biltzen dira. Gasolindegia (kutsaduraren arrisku gunea) itxi egin da eta Atxa-txiki harrobian hondakinak bildu eta sarbidea itxi da.

– Gutxieneko emari ekologikoa mantentzeko ezintasuna, erakarpenen ondorioz.

– Urkiolako malda batzuetako higadura, malda handiaren eta prozesu antropikoen eraginezko azalerako isurketa prozesuen ondorioz.

Parkeko hondakin uren tratamenduari dagokionez, 1999an araztegi bat instalatu zen Santutegian. Gainontzeko instalazioek hobi septikoak dituzte, baina batzuek zuzen-zuzen isurtzen dute ibaietara. Urkiolako eta Inunganeko parasitoak kentzeko bainu-ontziek, bestalde, hondakin urak biltzeko biltegia dute, horiek gero tratatu ahal izateko; Belatxikietakoak, berriz, zuzen-zuzen isurtzen du lurraldera.

2.12.8.– Hezkuntza, zabalkundea eta ikerketa.

2.12.8.1.– Hezkuntza.

Urkiolako Parke Naturalaren adierazpenaren helburuetako bat biztanleak natur ingurura hurbiltzea da, ingurumena hobeto ezagutu dezaten eta harenganako atxikimendua piztu eta natura zaindu beharraz jabetu daitezen.

Horretarako, hezkuntza proiektu bat dago abian, eta horren barruan, era guztietako pertsonei eskainitako arreta eta ikastetxeetara bideraturiko jardueren programa jasotzen dira. Garatutako programak («Parkerako hurbilketa», «Parkeko pagadia», «Parkeko erabilerak», «Urkiola ezagutzen» eta «Urkiolako fauna»), beste alde batetik, inguruetara nahiz erakusketetara egindako bisitaldietan, dinamizazioko jolasetan eta hegaztien behaketetan oinarritzen dira. Funtsean, hezkuntza lana Toki-Alaiko informazio, interpretazio nahiz harrera zentroan eta Letona-Korta baserrian garatzen da.

2.12.8.2.– Zabalkundea.

Seinaleak eta panelak mantentzeaz gain, Parkeak zenbait liburuxka eta Parkeko jarduerei buruzko informazioa ematen duen hileroko aldizkari bat argitaratzen ditu. Halaber, jarduera kulturalen antolaketa ere sustatu da (adibidez, mintegiak, jardunaldiak eta erakusketak).

2.12.8.3.– Ikerketa.

Parkeari eta bertako baliabideei buruzko lan eta ikerketa teknikoak egin dira, eta horiek kontsultatu egin dira Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidari hau egitean. Horietariko batzuk ondoren adierazitakoak dira:

Las perturbaciones más destacadas ligadas al agua en Urkiola son:

– Existencia de focos de contaminación, principalmente debido a concentraciones de ganado en infraestructuras ganaderas y a residuos sólidos y líquidos de origen antrópico. Se usan fertilizantes en la cuenca del Urkiola y pastizales de Mugarra, Pol-Pol y Zabalandi.

– La recogida de residuos sólidos se realiza de manera semanal en las áreas recreativas y periódica en la carretera BI-623. La gasolinera (posible foco de contaminación) ha sido desmantelada y en la cantera de Atxa-txiki se ha hecho recogida de deshechos y sellado de acceso.

– Imposibilidad de mantener el caudal ecológico mínimo debido a las captaciones.

– Erosión en diversas laderas de Urkiola debido a los procesos de escorrentía superficial propiciados por la elevada pendiente y por los procesos antrópicos.

En lo relativo al tratamiento de aguas residuales en el Parque, en 1999 se instaló una depuradora en el Santuario. El resto de instalaciones cuenta con fosas sépticas, aunque algunas de ellas vierten directamente a los ríos. Las bañeras de desparasitación de Urkiola e Inungane cuentan con un depósito de almacenaje de aguas residuales para su posterior tratamiento, mientras que la de Belatxikieta vierte directamente al terreno.

2.12.8.– Educación, divulgación e investigación.

2.12.8.1.– Educación.

Uno de los objetivos de la declaración del Parque Natural de Urkiola es acercar a la población hacia el entorno natural para aumentar su conocimiento sobre este medio, así como lograr una mayor sensibilización hacia la necesidad de su conservación.

Para ello se está llevando a cabo un proyecto educativo que contempla tanto la atención al público en general como la realización de un programa de actividades destinado a los centros escolares. Los programas desarrollados («Aproximación al Parque», «El hayedo en el Parque», «Usos en el Parque», «Conociendo Urkiola» y «Fauna de Urkiola») se basan en visitas por los alrededores y a las exposiciones, juegos de dinamización y observación de aves. Básicamente, la labor educativa se desarrolla en el centro de información, interpretación y acogida de Toki-Alai y en el caserío de Letona-Korta.

2.12.8.2.– Divulgación.

Además del mantenimiento de las señalizaciones y paneles, el Parque publica diversos folletos y una revista semestral que informa sobre las actividades del Parque. Asimismo, se ha promovido la organización de diversas actividades culturales, como seminarios, jornadas y exposiciones.

2.12.8.3.– Investigación.

Se han desarrollado una serie de trabajos y estudios técnicos acerca del Parque y sus recursos, que han sido consultados en la elaboración del presente Plan Rector de Uso y Gestión. Algunos de ellos son:

– 1/5000 eskalako planoa, eta landa-katastroa bertan oinarritu zen.

– Parkeko Landarediari eta Faunari buruzko Ikerketa.

– Urkiolako Parke Naturaleko interes kulturaleko elementuen katalogoa.

– Landaredi autoktonoa suspertzeko irizpideak.

– Eremu babestuaren eta bertako komunitateen arteko lotura.

2.13.– Ekonomiari eta biztanleriari loturiko alderdiak (eragin sozio-ekonomikoaren eremua).

Santutegiko eremua kenduta, Parke Naturalaren barruan ez dago beste biztanle gunerik nahiz eta behe aldeko zonetan sakabanaturiko baserri isolatu batzuk egon. Hala eta guztiz ere, gizakiaren presentzia handiko zonan kokaturik dago.

Urkiolako Parke Naturalaren eragin sozio-ekonomikoaren eremua, Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeari buruzko 16/1994 Legeko 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako udalerri hauek osatzen dute: Aramaio Araban, eta Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Dima, Durango, Izurtza nahiz Mañaria Bizkaian. Horietan, herri administrazioek garapen programak sustatuko dituzte, honako helburu hauek lortu ahal izateko:

a) Zonako biztanleak Parkearen babesari eta kudeaketari lotutako jardueretan integratzea.

b) Jarduera bateragarriak eta inguru naturalarekiko errespetua duten nekazaritzako edo abeltzaintzako jarduerak sustatzea eta sartzea, konpentsazioak ezarrita.

c) Azpiegiturak sortzea eta zerbitzuen nahiz hornikuntza maila egokiak lortzea.

d) Landa-etxebizitza birgaitzea eta ondare arkitektonikoa kontserbatzea.

e) Ekimen kulturalak, zientifikoak, pedagogikoak eta jolasekoak bultzatzea.

Parkeari lurrak ematen dizkioten udalerri horietako biztanleria 52.692 biztanlekoa zen 2001ean, eta biztanleok ondoren adierazitakoaren arabera banaturik zeuden:

– Mapa a escala 1/5.000, sobre el que se situó el catastro de rústica.

– Estudio de la flora y fauna del Parque.

– Catálogo de elementos de interés cultural del Parque Natural de Urkiola.

– Criterios de restauración de la vegetación autóctona.

– La relación entre el espacio protegido y las comunidades locales.

2.13.– Aspectos económicos y poblacionales (área de influencia socioeconómica).

A excepción del área del Santuario, no existe ningún núcleo habitado en el interior del Parque Natural, aunque se da la presencia de caseríos aislados, dispersos por las zonas más bajas. No obstante, éste se encuentra en una zona muy humanizada.

El área de influencia socioeconómica del Parque Natural de Urkiola está constituida, de acuerdo con el artículo 22 de la Ley 16/1994, de conservación de la naturaleza del País Vasco, por los términos municipales de Aramaio en Álava, y los de Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Dima, Durango, Izurtza y Mañaria en Bizkaia. En ella, las administraciones públicas promoverán programas de desarrollo con las siguientes finalidades:

a) Integrar a los habitantes de la zona en actividades derivadas de la protección y gestión del Parque.

b) Fomentar e introducir actividades compatibles y prácticas agropecuarias respetuosas con el medio natural, mediante el establecimiento de compensaciones.

c) Crear infraestructuras y lograr niveles de servicios y equipamientos adecuados.

d) Rehabilitar la vivienda rural y conservar el patrimonio arquitectónico.

e) Estimular iniciativas culturales, científicas, pedagógicas y recreativas.

La población de estos municipios que aportan terrenos al Parque era, en 2001, de 52.692 habitantes, repartidos del siguiente modo:

| Udalerria<br>*Municipio* | Biztanle kopurua<br>*Nº habitantes* | Udalerria<br>*Municipio* | Biztanle kopurua<br>*Número de habitantes* |
|---|---|---|---|
| Abadiño | 6.843 | Dima | 1.052 |
| Amorebieta-Etxano | 16.182 | Durango | 25.003 |
| Aramaio | 1.466 | Izurtza | 266 |
| Atxondo | 1.427 | Mañaria | 453 |

Iturria: EUSTAT
*Fuente: EUSTAT*

Lur-azalerarik handieneko udalerriak Aramaio, Dima, eta Amorebieta-Etxano dira. Hala eta guztiz ere, Urkiolako Parke Naturalaren barruan lurzoru-azalerarik handiena dutenak Dima, Abadiño eta Mañaria dira.

Urkiolako Parke Naturalean honako eremu funtzional hauek biltzen dira: Durangokoa (industri sektorean espezializatuta), Mondragon-Bergarakoa (berau erre industri sektoreari lotutako produkzio-egituraduna) eta Arratiako azpi-eremua (Bilbo Handiko eremu funtzionalaren barrukoa, eta garrantzitsua industriaren, zerbitzuen, eraikuntzaren eta nekazaritzaren sektoreetan).

Lehen sektoreak garrantzi txikiagoa dauka Urkiolako Parke Naturaleko eragin sozio-ekonomikoko eremuan, eta aipagarria da industriak eskualdeko ekonomian duen garrantzia.

Urkiolako eremu sozio-ekonomikoaren eraginpean dagoen zonako langabezi tasa Durangalde osokoaren antzekoa da, Bizkaikoa eta Euskal Autonomia Erkidegokoa baino apur bat txikiagoa.

2.14.– Kultur ondarea.

2.14.1.– Ondare arkeologikoa.

Zenbait elementu daude eta horietariko batzuk ustezkotasun arkeologikoko zonatzat (UAZ) babesturik daude; beste batzuk berriz, monumentu izendatu nahi dira:

Los municipios que poseen una mayor superficie territorial son Aramaio, Dima y Amorebieta-Etxano. Sin embargo, los que tienen una mayor superficie de suelo dentro del Parque Natural de Urkiola son Dima, Abadiño y Mañaria.

En el Parque Natural de Urkiola confluyen las áreas funcionales de Durango (especializada en el sector industrial), de Mondragón-Bergara (cuya estructura productiva también tiene predominio industrial) y la subárea de Arratia (perteneciente al área funcional del Gran Bilbao, con importancia en los sectores de industria, servicios, construcción y agricultura).

El sector primario tiene una importancia menor en el área de influencia socioeconómica del Parque Natural de Urkiola, destacando el peso de la industria en la economía de la comarca.

La tasa de paro de la zona de influencia socioeconómica de Urkiola es similar a la general para la comarca del Duranguesado, ligeramente inferior a la de Bizkaia y a la del conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.14.– Patrimonio cultural.

2.14.1.– Patrimonio arqueológico.

Existen diversos elementos, algunos de los cuales gozan de protección como zona de presunción arqueológica (ZPA), mientras que para otras existe la propuesta de declararlas Monumentos:

| Izena<br>*Denominación* | Udalerria<br>*Municipio* | Babesa<br>*Protección* |
|---|---|---|
| Cueva de Belatxikieta | Amorebieta-Etxano | UAZ/*ZPA* |
| Ermita de San Vicente Zarra | Dima | UAZ/*ZPA* |
| Ermita de Santa Lucía | Durango | UAZ/*ZPA* |
| Cueva/abrigo de Silibranka | Mañaria | UAZ/*ZPA* |
| Cueva de Kobazar II | Mañaria | UAZ/*ZPA* |
| Cueva de Jentilkoba | Mañaria | UAZ/*ZPA* |
| Cueva de Albiztei | Abadiño | UAZ/*ZPA* |
| Santuario de los Santos Antonios | Abadiño | UAZ/*ZPA* |
| Ferrería de Olaetxe | Abadiño | UAZ/*ZPA* |
| Tejería de Izarraga | Aramaio | UAZ/*ZPA* |
| Dolmen de Anbotoste | Aramaio | UAZ/*ZPA* |
| Cueva ARC-13 | Dima | Monumentua/*Monumento* |
| Túmulo de Artatxaga | Durango | Monumentua/*Monumento* |
| Cueva de Azkondo | Mañaria | Monumentua/*Monumento* |
| Cueva de Kobagorri IV | Mañaria | Monumentua/*Monumento* |
| Cueva de Oyalkoba | Abadiño | Monumentua/*Monumento* |
| Cueva Kobazarra | Abadiño | Monumentua/*Monumento* |
| Dolmen de Saiputzueta | Abadiño | Monumentua/*Monumento* |
| Recinto fortificado de Axtxiki | Abadiño | Monumentua/*Monumento* |
| Cueva de Asuntze | Abadiño | Monumentua/*Monumento* |

Iturria: Euskadiko Kultur Ondarearen Zentroa
*Fuente: Centro de Patrimonio Cultural Vasco*

2.14.2.– Interes kulturaleko ondasun higiezinak.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren arabera Urkiolako Parke Naturalean ondoko taulan adierazitako kultur intereseko ondasun higiezinak daude.

2.14.2.– Bienes inmuebles de interés cultural.

De acuerdo con el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, en el ámbito del Parque Natural de Urkiola se encuentran los bienes inmuebles de interés cultural detallados en la tabla siguiente.

| Izena<br>*Denominación* | Udalerria<br>*Municipio* | Auzoa<br>*Barrio* | Proposamena*<br>*Propuesta** |
|---|---|---|---|
| Santuario de los Santos Antonios | Abadiño | Urkiola | 1 |
| Leguario | Abadiño | Urkiola | 1 |
| Campanario | Abadiño | Urkiola | 1 |
| Central Hidroeléctrica Mendizabal | Mañaria | Urkuleta | 1 |
| Caserío Urkola | Mañaria | Urkiola | 1 |
| Ermita de la Santa Cruz | Aramaio | Etxaguen | 2 |
| Ermita del Santo Cristo | Abadiño | Urkiola | 2 |
| Ermita de los Santos Remedios y Santa Apolonia | Abadiño | Urkiola | 2 |
| Caserío Olaetxe | Abadiño | Atxarte | 2 |
| Molino de Atxarte | Abadiño | Atxarte | 2 |
| Ermita de San Lorenzo | Mañaria | Aldegoiena | 2 |

Iturria: Euskadiko Kultur Ondarearen Zentroa
*Fuente: Centro de Patrimonio Cultural Vasco*
*Proposamena. 1, EAEko monumentutzat edo monumentu-multzotzat izendatzeko proposatu diren ondasun higiezinak; 2, udalerri mailan babesteko proposaturiko ondasun higiezinak.
**Propuesta. 1, bienes inmuebles propuestos para declarar como monumentos o conjuntos monumentales de la CAPV; 2, bienes inmuebles propuestos para ser protegidos a nivel municipal*

2.15.– Azalpeneko material gehigarria.

2.15.1.– Bibliografia.

Plan honetan aztertutako alderdiei buruzko informazio gehigarria aurkitzeko aukera ematen duten agiriak, «hezkuntza, zabalkundea eta ikerketa» epigrafean adierazitakoak ez ezik, honako hauek dira:

– Urkiolako Parke Naturaleko landaredi fungikoaren kontserbazio egoeraren balorazioa.

– Urkiolako Parke Naturaleko uretako inguruaren gaineko eraginen identifikazioa, ebaluazioa eta zuzenketa.

– Mugarrako, Eskuagatxeko eta Baltzolako kobazuloen eta leizeen ikerketa.

– Urkiolako Parke Naturalaren ezaugarri hidrobiologikoak.

– Abadiñoko Udaleko UP-18 mendia («Urkiola basoak») antolatzeko proiektua.

– Urkiolako Parke Naturala bisitatzen duten pertsonen iritziaren ikerketa.

– Urkiolako Parke Naturaleko esfagnalen jarraipena.

– Urkiolako Parke Naturaleko mendiko larreetako abeltzaintzaren ikerketa.

2.15.– Material descriptivo adicional.

2.15.1.– Bibliografía.

Los documentos donde puede encontrarse información adicional sobre los aspectos tratados en el presente Plan, además de los ya indicados bajo el epígrafe «educación, divulgación e investigación», son los siguientes:

– Valoración del estado de conservación de la flora fúngica del Parque Natural de Urkiola.

– Identificación, evaluación y corrección de impactos sobre el medio acuático en el Parque Natural de Urkiola.

– Estudio de cuevas y simas de Mugarra, Eskuagatx y Baltzola.

– Caracterización hidrobiológica del Parque Natural de Urkiola.

– Proyecto de ordenación del monte de U.P. n.º 18 «Urkiola basoak» del Ayuntamiento de Abadiño.

– Estudio de opinión de las personas que visitan el Parque Natural de Urkiola.

– Seguimiento de los esfagnales en el Parque Natural de Urkiola.

– Estudio de la potencialidad ganadera de los pastizales de montaña en el Parque Natural de Urkiola.

– Urkiolako Parke Naturaleko urkien dinamika tenporalaren eta espazialaren ikerketa.

– Dimako Eskuagatxen egindako ikerketa hidrologikoa.

– Urkiolako zonako txosten edo diagnostiko sozio-ekonomikoa.

– Urkiolako Santutegiko plan berezia.

– Oilagorra, eguneko harrapariak eta ugaztun haragijaleak kontserbatzeko nahiz erabiltzeko plan teknikoak.

– Aramaioko mendiak kudeatzeko plana.

2.15.2.– Estaldura kartografikoa eta datu-baseak.

Erreferentzia kartografiko zehatzagotzat, Arabako eta Bizkaiko foru aldundien 1:5.000 eskalako mapa topografikoak daude. 1:5.000 eskalako ortoargazkiei dagokienez, berrienak Eusko Jaurlaritzak 2001ean egindako hegaldi batekoak dira.

3.– Ebaluazioa eta helburuak.

3.1.– Hasierako ebaluazioa.

Fase honetan, espazioaren ezaugarrien garrantzia ebaluatu nahi da, espazioak ikuspegi ekologikotik eta sozio-ekonomikotik duen interesa agerian jartzen duten ezaugarri nagusiak adierazita. Neurri batean, prozesu hau Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana egitean eta Natura 2000 sarean sartzeko proposaturiko espazioen hautapenean abiatu zen. Hala eta guztiz ere, Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidari honetan aurkeztutako formulazioa hobeto egokitzen da Eurosite erakundeak proposaturiko egiturara.

3.1.1.– Irizpide ekologikoak.

– Ahultasuna: zenbait zona (esate baterako, esfagnalak eta kare-harrizko gailurrak) oso ahulak dira, narriatuz gero denbora luzea behar baita horiek suspertzeko. Pagadien kasuan gauza bera gertatzen da.

– Arrarotasuna: Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan, Urkiolako Parke Naturaleko landaredian 12 espezie endemiko daude, 35 oso arraroak, 12 finkaturiko arraroak eta 100 arraroak, eta gehienak haitzetan eta zohikatzezko eremu hidrologikoetan agertzen dira.

– Naturaltasuna: gizakiak mende askotan Naturaltasuna: gizakiak mende askotan aldatu du Urkiola; horrenbestez, isolaturiko gune txiki batzuetan izan ezik (kare-harrizko gailurrak, etab.), ez dago habitat naturalik.

– Tipikotasuna: pagadi batzuek agerian jartzen dute ikazkintzarako egindako mozketa.

– Interes berezia: Paisaiari lotutako alderdiak garrantzitsuak dira Urkiolan.

– Dimentsioak: Parkeak 5.958,3 ha-ko azalera dauka, eta horrek zaildu egiten du espazio handia behar duten espezieen populazioen mantenamendua.

– Estudio de la dinámica temporal y espacial de los abedulares en el Parque Natural de Urkiola.

– Estudio hidrológico en Eskuagatx, Dima.

– Informe diagnóstico socio-económico de la zona de Urkiola.

– Plan especial del Santuario de Urkiola.

– Planes técnicos de conservación y manejo de la becada, las rapaces diurnas y los mamíferos carnívoros.

– Plan de gestión de los montes de Aramaio.

2.15.2.– Cobertura cartográfica y bases de datos.

Como referencias cartográficas más detalladas, se dispone de mapas topográficos a escala 1: 5.000 de las diputaciones forales de Álava y Bizkaia. En cuanto a ortofotos a escala 1: 5.000, las más recientes corresponden a un vuelo efectuado en 2001, del Gobierno Vasco.

3.– Evaluación y objetivos.

3.1.– Evaluación inicial.

En esta fase se pretende evaluar la importancia de las características que definen el espacio, explicitando aquellos puntos clave que evidencian el interés del espacio desde los puntos de vista ecológico y socioeconómico. En parte, este proceso se puso en marcha también durante la elaboración del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales y de la selección de espacios propuestos para su incorporación a la red Natura 2000. No obstante, la formulación presentada en este Plan Rector de Uso y Gestión se adapta más a la estructura propuesta por la organización Eurosite.

3.1.1.– Criterios ecológicos.

– Fragilidad: zonas como los esfagnales y los cresteríos calizos son consideradas de gran fragilidad, por el largo periodo de recuperación necesario en caso de degradación. Lo mismo ocurre con las masas de hayedo.

– Rareza: en el contexto del País Vasco, la flora del Parque Natural de Urkiola considera 12 especies endémicas, 35 muy raras, 12 raras localizadas y 100 raras, que aparecen en su mayoría en roquedos y áreas higroturbosas.

– Naturalidad: Urkiola ha sido durante siglos alterado por el hombre, así que salvo algunos pequeños reductos aislados (cresteríos calizos, etc.) no alberga hábitats propiamente naturales.

– Tipicidad: algunos hayedos son un claro exponente de la práctica del desmoche para el carboneo.

– Interés especial: los aspectos ligados al paisaje son relevantes en Urkiola.

– Dimensiones: el Parque ocupa una extensión de 5.958,3 ha, superficie que dificulta el mantenimiento de poblaciones viables de especies con grandes requerimientos de espacio.

– Aniztasuna: Urkiolako Parke Naturala anitza da, habitatei eta landaredi nahiz fauna espeziei dagokienez.

– Egonkortasuna eta ezegonkortasuna: Urkiolan garatu diren erabilera tradizionalen ondorioz (abeltzaintzako eta basoko erabilerak), paisaiak mantentzeko joera dauka. Jarraipen naturalari bere bidea egiten uzten zaioenean, lehen aipatutako landaredia finkatuko da.

– Espazioak eskualdeko egitura ekologikoan duen lekua: gizakiaren presentzia handiko zona baten barruko barruti naturala da, eta oso garrantzitsua izan daiteke EAEko beste eremu natural batzuen artean (adibidez, Gorbeia eta Aizkorri) korridore ekologikoak sortzeko; halaber, garrantzizkoa izan daiteke kantabriar eta piriniar mendi-kateen arteko loturarako, euskal mendietatik.

– Ordezpenerako aukera: baso autoktonoko zonak eta beste gune berezi batzuk nekez ordezteko modukoak dira, suspertze naturala motela eta zaila delako. Hala eta guztiz ere, basoko eta abeltzaintzako erabilerak dituzten zonetan beste landare batzuk sar daitezke, baina denbora aldi luzean.

3.1.2.– Irizpide sozio-ekonomikoak.

Espazioaren handitasunaren, turismorako aukeren eta lurraren jabetzaren eraginez, Urkiolako Parke Naturalean erabilera publikoa eta lurraren ustiakuntza ekosistemen kontserbazioarekin bateratu behar dira nahitaez.

Parkearen barruko lurren jabeek, batez ere basoko ustiakuntzan ziharduteIarik, Urkiolako Parke Naturalaren Eraginpekoen Elkartea (APANUR) sortu zuten, euren interesak defendatzeko. Hasieran euren lurretan eragina izan zitekeen kontserbazioko edozein jarduketaren aurkakoak izan arren, basoko konpentsazioei lotutako politikak (lehenengo EKPGean idatzia eta oraingo honetan berrikusia) gatazkak ekidin ditu.

Abeltzaintzako elkarteen arteko akordiorik ezak ere gatazkak sortu ditu, eta, horien ondorioz, ezinezkoa izan da kasuan kasuko larredietarako muga argiak zehaztea (gatazka hori nabarmenagoa da Atxondoko, Abadiñoko eta Aramaioko abeltzain-elkarteen artean). Hala eta guztiz ere, erabilera hori arautu egin behar da, ekosistemen gaineko ondorio kaltegarriak saihesteko (larreetako gehiegizko kargen eta efluente kutsagarrien eraginezko ondorioak).

Josteta-erabilera oso garrantzitsua da Parkean, baina zenbait alderdi antolatu beharra dago, sor daitezkeen gatazkak ekiditeko. Parkera Urkiolako gainetik dauden sarbideei lotutako kexak egon dira, eta, hori konpontzeko, bisitarientzako parkinga egokitu da.

3.1.3.– Balio potentziala.

Ezaugarri ekologikoetan eta sozio-ekonomikoetan oinarrituz, Parkeak aukera handiak ditu ingurumen kalitateak hobekuntzak sustatzeko.

– Diversidad: el Parque Natural de Urkiola es diverso en lo que se refiere a hábitats y especies de flora y fauna.

– Estabilidad e inestabilidad: los usos tradicionales (ganaderos y forestales) que se vienen desarrollando en Urkiola hacen que el paisaje tienda a mantenerse. Donde se permita que la sucesión natural siga su curso se establecerá la vegetación potencial anteriormente citada.

– Lugar que ocupa el espacio en la estructura ecológica de la región: es un reducto natural en una zona altamente humanizada, que podría ser relevante para la creación de corredores ecológicos entre otros espacios naturales de la CAPV (Gorbeia y Aizkorri, por ejemplo), así como en la conexión entre las cordilleras cantábrica y pirenaica a través de los montes vascos.

– Reemplazabilidad: las zonas de bosque autóctono y otros enclaves singulares se pueden considerar espacios difíciles de reemplazar, ya que la regeneración natural es lenta y costosa. Sin embargo las zonas dedicadas a usos forestales y ganaderos serían fácilmente reemplazadas por la vegetación potencial, aunque en un período largo de tiempo.

3.1.2.– Criterios socioeconómicos.

La extensión del espacio y su potencial turístico, así como la propiedad del terreno, hacen del Parque Natural de Urkiola un espacio donde el uso público y la explotación del terreno han de compatibilizarse necesariamente con la conservación de los ecosistemas.

Los propietarios de tierras en el interior del Parque, fundamentalmente dedicados a la explotación forestal, crearon la Asociación de Afectados por el Parque Natural de Urkiola (APANUR) con el fin de defender sus intereses. Si bien en un principio eran reacios a toda actuación de conservación que pudiera afectar a sus tierras, la política adoptada de compensaciones forestales (redactada en el primer PRUG y revisada en éste) ha evitado los conflictos.

Otra fuente de conflictos se origina por la falta de acuerdos entre las asociaciones ganaderas, que no ha permitido definir unos límites claros para sus respectivas zonas de pasto (conflicto más patente entre las asociaciones de ganaderos de Atxondo, Abadiño y Aramaio). No obstante, es imprescindible una regulación de este uso para evitar consecuencias negativas sobre los ecosistemas, derivadas de sobrecargas en pastos y de efluentes contaminantes.

El uso recreativo es muy importante en el Parque, pero hay aspectos que requieren ordenación para prevenir posibles conflictos. Han existido quejas por los accesos al Parque desde el alto de Urkiola, lo que se ha solucionado acondicionando un parking para los visitantes.

3.1.3.– Valor potencial.

Con base en las características ecológicas y socioeconómicas, las oportunidades del Parque para promover mejoras de la calidad ambiental en sentido amplio son varias.

– Hobekuntza ekologikoa: batez ere baso naturaletan eta haitzetako nahiz zohikatzezko inguru hidrologikoetako landaredi zein fauna espezieetan.

– Faunarako lasaitasunaren handitzea: parkerako sarbideak arautzea, markaturiko ibilbideen bitartez, eta ehiza arautzea.

– Ikusmen mailako hobekuntza eta paisaiarena: bertan behera utzitako harrobiak suspertuta eta basoko ustiakuntzak araututa.

– Hezkuntzarako eta ikerketarako aukeren sorrera: batik bat parkearen inguruko ikastetxeak eta talde kulturalak zein zientifikoak inplikatuz.

– Bertako komunitateetarako errekurtsoen sorrera, babestutako espazioa kontserbatzeko jaso daitezkeen dirulaguntzei esker (baliabide naturalen monetarizazioa).

– Beste lurralde batzuetako kudeatzaileei zabalkundea egiteko aukerak: Euskal Autonomia Erkidegoko Eremu Natural Babestuen Sarearen funtzionamendua hobetuz.

– Zonako ondare historikoa eta soziokulturala mantentzea, kontserbatzea eta erabiltzea.

3.2.– Helburu idealak.

Urkiolako Parke Naturalerako, izendapenaren dekretuan adierazitakoak hartzen dira helburu idealtzat:

a) Funtsezko prozesu ekologikoak mantentzea eta suspertzea.

b) Aniztasun genetikoa zaintzea.

c) Baliabide naturalen produkzioa hobetzea eta indartzea.

d) Ekosistema naturalen eta paisaiaren aniztasuna, berezitasuna eta edertasuna kontserbatzea.

e) Kanpoko bisitari kopurua bideratzea eta antolatzea, zonako balio naturalen ezagupenerako nahiz gozamenerako.

f) Baliabide naturalen zentzuzko erabileran oinarrituriko sustapen soziala eta ekonomikoa lortzea.

3.3.– Faktore mugatzaileak edo aldatzaileak.

Kudeatzaileak helburu idealak lortzeko dituen aukerak mugatzeko gauza diren faktore edo elementu batzuk aipatzen dira, eta horiek ondorio onak, txarrak, neutroak edo ezezagunak dituzte.

3.3.1.– Espazioaren barruan jardun dezaketen faktore mugatzaileak edo aldatzaileak.

– Kanpoko espezie aloktonoen edo inbaditzaileen hedapena.

– Espazioa, neurri batean, Jabari Publiko Hidraulikoaren barruan dago.

– Parkeko ubideetan gutxieneko emari ekologikoa lortzea zaila da, erakarpenen eta agorraldiaren ondorioz.

– Mejora ecológica: sobre todo de los bosques naturales y de las especies de flora y fauna que habitan en los roquedos y ambientes higroturbosos.

– Aumento de la tranquilidad para la fauna: regulación del acceso al Parque mediante los itinerarios marcados, y regulación de la caza.

– Mejora visual y del paisaje: con la restauración de las canteras abandonadas y la ordenación de explotaciones forestales.

– Crear oportunidades para la educación e investigación: especialmente implicando a los centros escolares del ámbito del Parque y a colectivos culturales y científicos.

– Generar recursos para las comunidades locales, gracias a las subvenciones que puede recibir para la conservación el espacio protegido (monetarización de los recursos naturales).

– Posibilidades de divulgación a gestores de otros territorios: mejorando el funcionamiento de la Red de Espacios Naturales Protegidos del País Vasco.

– Mantener, conservar y dar utilidad al patrimonio histórico y sociocultural de la zona.

3.2.– Objetivos ideales.

Se adoptan como objetivos ideales para el Parque Natural de Urkiola los especificados en su decreto de declaración:

a) Mantener y recuperar los procesos ecológicos esenciales.

b) Preservar la diversidad genética.

c) Mejorar y reforzar la producción de los recursos naturales.

d) Preservar la variedad, singularidad y belleza de los ecosistemas naturales y del paisaje.

e) Canalizar y ordenar la afluencia externa para el conocimiento y disfrute de los valores naturales de la zona.

f) Lograr una potenciación social y económica basada en la utilización racional de los recursos naturales.

3.3.– Factores limitadores o modificadores.

Se reseñan algunos factores o elementos capaces de limitar las posibilidades del gestor para alcanzar los objetivos ideales, al presentar efectos positivos, negativos, neutros o desconocidos.

3.3.1.– Factores limitadores o modificadores que pueden actuar dentro del espacio.

– Expansión de especies ajenas/alóctonas o invasoras.

– El espacio está, en parte, dentro del Dominio Público Hidráulico.

– Es difícil conseguir el caudal ecológico mínimo en los cursos de agua que discurren por el Parque, debido a las captaciones y al estiaje.

– BI-623 errepideak espazioa zeharkatzen du.

– Santutegiko zona Iparraldetik Hegoaldera zeharkatzen duen tentsio altuko linea.

– Ez dago espazioa kudeatzeko behar den langile kopuru nahikorik.

– Martxan dabiltzan harrobien handitzea.

– Norbanakoen basoak edozein urtarotan mozten dira, hazkuntza- garaiak kontuan hartu barik, eta horrek eragin izan dezake Parkeko faunaren kontserbazioan.

– Gatazkak daude jarduera-sektoreekin (adibidez, abeltzainekin eta basozainekin), edo horien arteko desadostasunak daude; horrek guztiak oztopatu egiten du antolaketa.

– Ez dago harreman handirik Parkeko eragin sozioekonomikoko zonako biztanleekin.

– Lurzoruaren jabetzaren zati handia pribatua da, eta, horren eraginez, jarduketak egitea zailagoa da.

– Basoen ustiakuntza masiboaren eta abeltzaintza estentsiboaren ondorioz, zonako habitat natural asko galdu egin dira.

– Sektore ahuletako josteta-erabilera trinkoak eragin kaltegarriak sor ditzake (faunan sortutako eragozpenen, lurra gehiegi zapaltzearen eta abarren eraginez).

– Eskaladak eta espeleologiak eragin kaltegarria izan dezakete haitzetako landaredi nahiz fauna populazioetan, baita sistema hipogeoetan ere.

3.3.2.– Espaziotik kanpo jardun dezaketen faktore mugatzaileak edo aldatzaileak.

Kontuan hartu beharreko lehenengo elementu mugatzailea Parketik hurbileko harrobien presentzia eta jarduera da (Markomin Goikoa eta Mutxate); horiek paisaian sortzen duten kalteak eragina dauka Urkiolako paisaiaren balorazioan.

3.4.– Antolaketarik ez dagoenerako aurreikuspena.

Baliabide Naturalak Antolatzeko Planean, baliabide naturalek, ekosistemek eta paisaiek etorkizunean izango zuten bilakaeraren diagnostikoa eta aurreikuspena egin zen, lurraldean garatutako erabilera batzuen antolaketarik ezari lotutako eszenatokian. 23 hipotesi planteatu ziren, zenbait sektoretan (zinegetikoa, basokoa, tokiko garapena, abeltzaintza, josteta, harrobiak eta azpiegiturak) kontrolik gabe egindako jarduerei buruz, eta ekosistemetan edo giza sistemetan aurreikusitako ondorioak adierazi ziren.

3.5.– Helburu eraginkorrak.

Helburu eraginkorrak helburu idealen ondoriozkoak dira; horien barruan funtsezko alderdiak sartzen dira, kudeaketa politikari dagokionez. Helburu eraginkorrak, izan ere, kudeaketaren arrakasta edo porrota oinarritzeko irizpideak dira, eta, euren garapen mailaren arabera, benetako helburutzat edo kuantifikatzeko moduko adierazletzat formulatu ahal dira. Nolabait ere, helburuok finkatzeko, jarraipen plana egin behar da, eta

– La carretera BI-623 atraviesa el espacio.

– Línea de alta tensión que atraviesa la zona del Santuario en dirección norte-sur.

– No se dispone de suficiente personal para gestionar el espacio.

– Ampliación de las canteras en funcionamiento.

– La tala de bosques de particulares en cualquier época del año, sin tener en cuenta temporadas de cría, puede afectar a la conservación de la fauna del Parque.

– Conflictos con sectores de actividad como ganaderos y forestalistas, o desacuerdos entre ellos que repercuten dificultando la ordenación.

– Escasa relación con los habitantes de la zona de influencia socioeconómica del Parque.

– Gran parte de la propiedad del suelo es privada, lo que dificulta la acometida de las actuaciones que quieran llevarse a cabo.

– La explotación forestal masiva y la ganadería extensiva han hecho perder gran parte de los hábitats naturales de la zona.

– El uso recreativo intenso en sectores sensibles puede provocar afecciones (por molestias a la fauna o pisoteo excesivo, etc.).

– La práctica de la escalada y la espeleología pueden tener un impacto sobre poblaciones de fauna y flora de roquedo, así como sobre los sistemas hipogeos.

3.3.2.– Factores limitadores o modificadores que pueden actuar fuera del espacio.

El principal elemento limitador a tener en cuenta estaría constituido por la presencia y actividad de las canteras próximass al Parque (Markomin Goikoa y Mutxate), cuya afección paisajística repercute en la valoración paisajística de Urkiola.

3.4.– Previsión en ausencia de ordenación.

En el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales se llevó a cabo un diagnóstico y previsión de la evolución futura de los recursos naturales, ecosistemas y paisajes, en un escenario de ausencia de ordenación de algunos usos que se desarrollan en el territorio. Allí se plantearon 23 hipótesis sobre actividades realizadas sin control en sectores como el cinegético, forestal, desarrollo local, ganadería, recreo, canteras e infraestructuras, señalándose consecuencias previsibles para los ecosistemas o los sistemas humanos.

3.5.– Objetivos operativos.

Los objetivos operativos derivan de los objetivos ideales, que son una declaración de fines, abarcando aspectos esenciales en cuanto a política de gestión. Los objetivos operativos constituyen, de hecho, criterios sobre los que basar el éxito o fracaso de la gestión y, según su grado de desarrollo, se formularían como verdaderos objetivos o como meros indicadores cuantificables. De alguna manera, su establecimiento avanza en

horren ebaluazioa berrikusten ari garen EKPGaren indarraldia amaitzean egingo da.

a) Biodibertsitatearen kontserbazioa.

– Baso autoktonoen hazkundearen ehunekoa.

– Haragijaleei eta eguneko harrapariei buruz katalogaturiko espezieen populazioen ugaritasun maila.

– Modu aktiboan kontserbaturiko Natura 2000 deritzoneko habitaten ehunekoa (hesiak, abereen karga beste leku batean kokatzea edo murriztea, edo beste batzuk).

b) Abeltzaintzako aprobetxamenduak.

– Azpiegiturak hobetzeko jarduketen kopurua, abeltzaintza edo baso-abeltzaintza suspertzeko zonetan.

– Identifikaturiko abelburu kopurua.

c) Basoko aprobetxamenduak.

– Organo kudeatzaileak eskuraturiko azalera.

– Hostozabal autoktonoen landaketen azalera, beste mota bateko landaketetan derrigorrezkoak diren ehunekoak kontuan hartuta, landatutako azalera osoari dagokionez.

– Hostozabalekin ordeztutako koniferoen azalera.

d) Aprobetxamendu hidraulikoak.

– Organo kudeatzailearen eskuhartze kopurua, kutsagarriak izan daitezkeen jardueren ikuskapenari dagokionez.

– Emari ekologikoen suspertze maila, emakidak dituzten erreketan.

e) Aprobetxamendu zinegetikoak.

– Ehiztarien eta jostetako beste erabiltzaile batzuen (ibiltariak, txirrindulariak, etab.) artean detektaturiko gatazka kopurua.

f) Erabilera publikoa.

– Interpretazio zentroko bisitarien ehunekoa, parkerako kalkulaturiko guztizkoari dagokionez.

– Parkeak sustaturiko hezkuntza programetan parte hartzen duen ikastetxe eta ikasle kopurua.

4.– Betearaztea: jarraibideak, arauketak eta jarduketak.

4.1.– Biodibertsitatearen kudeaketa eta kontserbazioa.

4.1.1.– Jarraibideak.

– Parkearen Organo Kudeatzaileak bertako basa-fauna eta basa-landaredia osatzen duten espezieak babestuko ditu, baita haien dibertsitatea eta ondare genetikoa ere.

– Bakanak edo ahulak diren habitatak zainduko dira; beharrezkoa den kasuetan bertako espezieak, populazioak eta komunitateak ere babestuko dira, eta arre-

la realización del plan de seguimiento a que obliga el PORN, cuya evaluación tendrá lugar al finalizar la vigencia del PRUG que ahora se revisa.

a) Conservación de la biodiversidad.

– Porcentaje de incremento de masas forestales autóctonas.

– Nivel de abundancia de poblaciones de especies catalogadas de carnívoros y rapaces diurnas.

– Porcentaje de hábitats de Natura 2000 preservados de manera activa (cercados, reubicación o reducción de carga ganadera u otros).

b) Aprovechamientos ganaderos.

– Número de actuaciones de mejora de infraestructuras en las zonas de restauración ganadera o forestal-ganadera.

– Número de cabezas de ganado identificadas.

c) Aprovechamientos forestales.

– Superficie adquirida por el órgano gestor.

– Superficie de plantaciones con frondosas autóctonas, incluyendo los porcentajes obligatorios en plantaciones de otro tipo, en relación con la superficie plantada total.

– Superficie de coníferas sustituidas por frondosas.

d) Aprovechamientos hidráulicos.

– Número de intervenciones del órgano gestor en lo relativo a supervisión de actividades potencialmente contaminantes.

– Grado de recuperación de caudales ecológicos en arroyos sometidos a concesiones.

e) Aprovechamientos cinegéticos.

– Número de conflictos detectados entre cazadores y otros usuarios recreativos (senderistas, ciclistas, etc.)

f) Uso público.

– Porcentaje de visitantes al centro de interpretación sobre el total estimado para el Parque.

– Número de centros de escolares y alumnos participantes en los programas educativos promovidos por el Parque.

4.– Ejecución: directrices, regulaciones y actuaciones.

4.1.– Gestión y conservación de la biodiversidad

4.1.1.– Directrices.

– El Órgano Gestor del Parque velará por la conservación de las especies de flora y fauna que habitan en estado silvestre, su diversidad y contenido genético.

– Se preservarán los hábitats escasos y/o vulnerables, estableciendo medidas específicas de protección para las especies, poblaciones y comunidades que así lo requie-

ta berezia emango zaie zohikaztegiei, harkaitzei eta sistema hipogeoei.

– Populazioen genetika zainduko da. Horretarako, ez da Urkiolatik kanpoko subespezierik edo arraza geografikorik sartuko.

– Urkiolako Parke Naturaleko erabilera eta jarduera tradizionalen mantenamendu kualitatiboa eta kuantitatiboa ahalbidetuko da, bertako espezieen eta taxonen kontserbaziorako tresnatzat, Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidari honetako gainerako puntuetan eta Baliabide Naturalak Antolatzeko Planean jasotako salbuespenekin.

– Oraingo baso autoktonoak mantenduko dira, bai azalerari eta bai egiturari dagokionez, eta, erabilera publikoko mendiei dagokienez, handitu egingo da horiek Parke Naturalean duten azalera.

– Basoko zonen aprobetxamenduak kontrolatuko dira, gehiegizko ustiakuntzarik ez egoteko, batik bat abereen kasuan, zuhaitzen suspertzea egokia izateko.

– Beharrezko zuhaitz zahar guztiak errespetatu eta kontserbatuko dira, kopuru nahikoan, horiek erabiltzen dituzten espezieen garapen egokirako.

– Gaur egun ia desagerturik dauden basoa kudeatzeko formak errespetatu eta kontserbatuko dira (baso motzetan, etab.), balio didaktiko, etnografiko eta zientifiko handikoak direlako.

– Landazabaleko zonan gaur egun dauden hesiak nahiz basotxoak mantendu eta horiek lurren mugetan sortuko dira. Hesiak eta ezpondak garbitzean ez da surik erabiliko.

– Urbazterreko landarediaren hedapena bultzatuko da, Urkiolako Parkeko ibaien eta erreken luzera osoan, behintzat Jabari Publiko Hidraulikoaren indarreko Araudian jasotako zor eta polizi zonetan, mendiei eta eremu natural babestuen administrazioari buruzko 3/1994 Foru Arauko 92. artikuluan ezarritakoaren arabera.

– Irizpide orokortzat, ez da plan berezirik egingo, Urkiolako Parke Naturaleko mehatxupeko faunaren katalogoan jasotako espezietarako; Bizkaiko eta Arabako foru aldundiek prestaturiko mehatxupeko espezieen kudeaketa planetan Parke Naturalari buruz dagoen zatia garatuko da. Ugaztun haragijaleei eta eguneko harrapariei dagokienez, lehendik egindako kontserbazio eta erabilera plan teknikoak erabiliz, Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidari honetan gomendioak jaso dira. Gainera, informazio gaurkotua edukiko da, espezie horien populazioek Parkean duten egoerari buruz.

– Espezie baten suspertze aktiborako ahalegina (suspertze plana), bestalde, suspertze pasiborako (babes pasiboa) ahaleginaren aldi berean edo horren ostean bideratu behar da. Lehenengoa beharrezkoa izanez gero, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

ran, con atención hacia los enclaves higroturbosos, roquedos y sistemas hipogeos.

– Se velará por la pureza de las poblaciones, evitando introducir subespecies o razas geográficas distintas a las propias de Urkiola.

– Se procurará el mantenimiento, tanto cualitativo como cuantitativo, de los usos y actividades tradicionales del área del Parque Natural de Urkiola como herramienta para la conservación de las especies y táxones que habitan en él, con las salvedades contenidas en los demás puntos de este Plan Rector de Uso y Gestión y en el Plan de Ordenación de los Recursos Naturales.

– Se mantendrán las masas actuales de bosques autóctonos, tanto en superficie como en estructura, y se tenderá a aumentar, dentro de los montes de utilidad pública, la superficie ocupada por ellos dentro del Parque Natural.

– Se controlarán los aprovechamientos de las zonas forestales para que no haya sobreexplotación, especialmente en el caso del ganado, de cara a conseguir que la regeneración arbórea sea satisfactoria.

– Se respetarán y conservarán, en número suficiente, los árboles viejos y añosos necesarios para el correcto desarrollo de las especies que los utilizan.

– Se respetarán y conservarán representaciones de formas de gestión del bosque hoy casi desaparecidas (bosques trasmochos, etc.) debido a su gran valor didáctico, etnográfico e incluso científico.

– Se mantendrán los setos y bosquetes que existen actualmente en la zona de campiña y se incentivará su creación en las lindes de los terrenos. Se evitará el uso del fuego en la limpieza de setos y ribazos.

– Se favorecerá la expansión de la vegetación de ribera en toda la extensión longitudinal de los ríos y arroyos del Parque de Urkiola, al menos en las zonas de servidumbre y policía del vigente Reglamento del Dominio Público Hidraúlico, de acuerdo también con el artículo 92 de la Norma Foral 3/1994, de montes y administración de espacios naturales protegidos de Bizkaia.

– Como criterio general, no se realizarán planes específicos para las especies incluidas en el catálogo de fauna amenazada del Parque Natural de Urkiola, sino que se desarrollará la parte correspondiente al Parque Natural de los planes de gestión de especies amenazadas que elaboren las diputaciones forales de Bizkaia y Álava. Para mamíferos carnívoros y rapaces diurnas, con planes técnicos de conservación y manejo ya elaborados, se han incorporado recomendaciones en el presente Plan Rector de Uso y Gestión. Además se procurará disponer de una información actualizada de la situación de las poblaciones de esas especies en el Parque.

– El esfuerzo de recuperación activa de una especie (plan de recuperación) debe dirigirse de forma paralela o posterior al esfuerzo de recuperación pasiva (protección pasiva). En el caso de ser necesario el primero de ellos, deben tenerse en cuenta los siguientes criterios:

– Espeziearen iraupena, ahal denean behintzat, bere inguru naturalean bermatu behar da, zuzendutako ugalketaren eta mehatxuko faktoreak ezabatzearen bidez.

– Espezie baten suspertzeak ez du eragin kaltegarririk sortu beharko beste espezie autoktono edo endemiko batzuetan.

– Suspertzeko ahaleginak, batik bat, giza jardueren eraginez (zuzen edo zeharka) gainbeheran dauden espezietarantz bideratu beharko dira.

– Eguneko harrapariak kontserbatzeko eta erabiltzeko planaren ondoriozko jarraibideak:

• Parkeko zuhaitz naturaleko masak kontserbatzea, oraingoak egoera ahalik eta naturalenetan mantenduta, eta horien egitura, osaketa nahiz ingurune baldintzak alda ditzaketen jarduerak mugatuz.

• Baso naturalen egitura, osaketa eta ingurune baldintzak alda ditzaketen jarduerak mugatzea.

• Epe luzera, espezie exotikoekin egindako basoko espezien ordezpena baztertzea, eta horren ordez espezie autoktono interesgarriak landatzea.

• Utilización de bañeras. Las asociaciones ganaderas regularán el uso de las bañeras, debiendo señalar un período concreto de tiempo para su utilización, el cual deberá ser comunicado al Órgano Gestor. De este modo se mejorará la gestión de los residuos, al utilizar más efectivamente los productos, y los costes de eliminación de los mismos.

– Instalación de infraestructuras. Las nuevas infraestructuras ganaderas que puedan producir concentraciones de ganado se localizarán en lugares donde no exista riesgo de contaminación hídrica, alejándolas de cursos de agua, dolinas o sumideros.

– Protección del paisaje y la diversidad biológica. Los tratamientos de implantación y mejora de pastos pueden suponer un impacto negativo para el paisaje y la diversidad biológica de una zona. A este respecto, cuando se realice una obra que implique desbrozado de vegetación, se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

• Integración en el paisaje. Se evitarán las formas geométricas, favoreciendo la discontinuidad de las líneas, apoyándose en la configuración del terreno. Del mismo modo, se evitarán los límites perpendiculares a las curvas de nivel, cortando éstas con ángulos comprendidos entre 15º y 60º y variando, cuando sea posible, para las diferentes porciones.

• Mantenimiento de la diversidad. En las transformaciones a realizar se evitará el establecimiento de amplias superficies homogéneas, manteniendo un «mosaico fisionómico» de zonas de matorral y pastos. Se procurará la instalación de árboles con fines protectores y/o forrajeros, de acuerdo con las asociaciones de ganaderos de la zona.

4.2.2.– Regulaciones.

– En los aspectos específicos del aprovechamiento de los recursos pastables, las entidades titulares cumplirán lo establecido en las normas forales y ordenanzas municipales correspondientes.

– El titular de los animales que vayan a pastar en Urkiola deberá acreditar bajo su responsabilidad el cumplimiento de las normativas de carácter general y específica de obligado cumplimiento en los Territorios Históricos de Álava y Bizkaia.

– Abeltzaintzarako azpiegiturak, berariaz duten helburua betetzeko erabiliko dira soilik, ez bestetarako; horretarako, Parkeko Organo Kudeatzaileak ikuskatu egin beharko du. Hark elkarte horien esku jarriko ditu atakak irekitzeko sistemak, elkartekideak larreetara eta azpiegituretara ibilgailuz joan ahal izan daitezen.

– Akordio bat bilatuko da Abadiñoko Abeltzainen Elkartearekin Atxondoko eta Oletako abeltzainek aukera izan dezaten parasitoak kentzeko bainuontzia erabiltzeko.

– Abereen erregistroa. Parkeko udaletxeek eta administrazio batzordeek bertako mendi publikoetako larreetan dabiltzan abereen eta horietan instalaturiko erlauntzen erregistroa eguneratuko dute. Kanpaina bakoitzean, Parkeko Organo Kudeatzaileari erregistraturiko abere motak eta kantitateak jakinaraziko zaizkio. Larre publikoetara eramango diren abelburu guztiak erregistratu behar dira, horien adina edozein izan arren. Erregistroko fitxan titularraren datu pertsonalak ez ezik, honako hau ere jasoko da:

• Ardi eta arkume kopurua.

• Ahari kopurua.

• Ahariak eta ardiak identifikatzeko kodeak.

• Ahuntz kopurua eta horiek identifikatzeko kodeak.

• Behor eta moxal kopurua.

• Zaldi kopurua.

• Behorrak eta zaldiak identifikatzeko kodeak.

• Behi eta txahal kopurua.

• Zezen kopurua.

• Behiak eta zezenak identifikatzeko kodeak.

• Erlauntz kopurua eta horien kokalekua.

– Identifikatu gabe dagoen edo Planeko arauak betetzen ez dituen abererik aurkituz gero, kendu egingo da. Kentze horren eta berorren mantenamenduaren kostuak abereen jabearen kontura izango dira.

– Urkiolako Parke Naturaleko Organo Kudeatzaileak, udalei eta administrazio batzordeei, bere zona erabiltzen duten abereentzako identifikazioa eman ahal izango die. Parke Natural osorako identifikazio homogeneoa proposatzen da, baina udal edo administrazio bakoitzaren berezitasuna jaso ahal izango da bertan.

– Hildako abereak kentzea. Debekaturik dago hildako abereak bertan uztea, batez ere Parke Naturaleko leizeetatik, zuloetatik edo ubideetatik hurbil. Hala eta guztiz ere, eguneko harrapariak kontserbatzeko eta erabiltzeko planean aipatutako ezpondak egokitzen badira, gizendegi horiek hornitzeko mekanismoak egituratuko dira.

– Abere-zamak. Ahaleginak egingo dira abere-zama ez dadin Parkeko bazka-ekoizpenaren gainean egon eta,

– Las infraestructuras ganaderas se utilizarán exclusivamente para el uso que las haya motivado o motive su construcción, con la supervisión del Órgano Gestor del Parque. Éste pondrá a disposición de las asociaciones ganaderas los medios de apertura de barreras para que sus asociados puedan acceder en vehículo a las zonas de pastos e infraestructuras.

– Se buscará un acuerdo con la Asociación de Ganaderos de Abadiño para lograr que se posibilite el uso de la bañera de desparasitación a los ganaderos de Atxondo y Oleta.

– Registro ganadero. Los ayuntamientos del Parque y juntas administrativas llevarán un registro del ganado que pasta en sus montes públicos y de las colmenas instaladas en ellos. En cada campaña se informará al Órgano Gestor del Parque de los tipos y cantidades de ganado registrados. Deberá registrarse toda cabeza de ganado que vaya a acceder a los pastos públicos, independientemente de su edad. En la ficha de registro, además de los datos personales del titular, se tomarán los siguientes:

• Número de ovejas y de corderos.

• Número de carneros.

• Códigos de identificación de los carneros y de las ovejas.

• Número de cabras y códigos de identificación.

• Número de yeguas y de potros.

• Número de caballos.

• Códigos de identificación de yeguas y caballos.

• Número de vacas y de terneros.

• Número de toros.

• Códigos de identificación de vacas y toros.

• Número y localización de las colmenas.

– Se procederá a la retirada del ganado no identificado y de aquel que no cumpla las ordenanzas municipales o las especificaciones de este Plan. Los costes derivados de esta retirada y de su mantenimiento correrán a cargo del titular del ganado aprehendido.

– El Órgano Gestor del Parque Natural de Urkiola podrá facilitar a los ayuntamientos y a las juntas administrativas una identificación para el ganado que utilice su zona. Se propone una identificación homogénea para todo el Parque Natural, aunque cabe recoger la particularidad de cada ayuntamiento o junta administrativa.

– Eliminación del ganado muerto. Se prohíbe el abandono de ganado muerto, especialmente en las proximidades de simas, grietas o cursos de agua del Parque Natural. No obstante, si fueran acondicionados los muladares a que se refiere el plan de conservación y manejo de rapaces diurnas, se articularían los mecanismos para surtir tales cebaderos.

– Cargas ganaderas. Se procurará que la carga ganadera no supere a la producción forrajera del Parque y

horrela, ez ditzan baliabide naturalak (lurzoru galtzeak, ur-kutsadura, ...) arriskuan jarri. Horretarako, alde bakoitzak eduki dezakeen gehienezko abere-zama ezartzen da, oraingo landarediaren azterketatik ateratako ondorioez baliatuta:

no pueda suponer un riesgo para la conservación de los recursos naturales (pérdida de suelo, contaminación hídrica…). A estos efectos, se establecen unas cargas ganaderas máximas por zonas, obtenidas a partir del análisis del estado de la vegetación:

| Aldea<br>*Zona* | ALU<br>*UGM* |
|---|---|
| Mugarra-Aramotz | 1.138 |
| Abadiño | 384 |
| Ollargan | 36 |
| Untzillatx | 75 |
| Atxondo-Oleta | 407 |
| Aramaio | 227 |

Karga horiek aldagarriak izan daitezke, larreek zona bakoitzean duten bilakaeraren arabera, eta ez dira balio absolututzat hartu behar, erreferentziako baliotzat baizik, abereekin egindako erabilera motak goitik behera alda dezakeelako abeltzaintza karga onargarria.

Urkiolako abeltzaintza karga, bestalde, larreak une bakoitzean duen egoerara egokituko da. Arrain-hazkuntzako baliabide erabilgarriek abere kopurua euskarritu ezin badute (hilabeterik arazotsuena iraila izan daiteke), abeltzaintza jarduera babesteko eta larreetako baliabideen gehiegizko ustiakuntza ekiditeko neurriak hartu ahal izango dira.

– Larratze-aldiak. Abeltzainen elkarteek, urtero, zeinek bere kudeaketa-unitateko larratze-aldiak proposatuko dituzte. Gero Parkeko Organo Kudeatzaileari jakinaraziko dizkiote.

– Osasuneko hustea. Urkiolako ezaugarriak kontuan hartuta, egokiena izango litzateke abeltzaintza estentsiborako zonaldeetan abererik ez sartzea urtarriletik martxora bitartean, biak barne. Horrenbestez, abeltzainekin batera aukeraturiko aldian Parkea abererik gabe geldituko da, osasuneko hustea egin ahal izateko. Osasuneko hustearen hilabeteetan abere guztiak Parketik aterako dira, jabeak jakinaren gain utzi ondoren.

– Abeltzaintzako ustiakuntzen titularrek zorrotz bete beharko dituzte Administrazioko zerbitzu teknikoek emandako osasun arauak. Edozein gaixotasun eduki dezaketen abere-taldeek (osasun kanpainaren barruko gaixotasuna izan ala ez), berriz, administrazioek kasu bakoitzerako emandako arau eta protokolo bereziak edo orokorrak bete beharko dituzte. Behien hazteriari dagokionez, horren eraginpean dagoen abere-talde guztiak Parkeko Organo Kudeatzaileari jakinarazi beharko zaizkio, abereen erregistroa egiteko ardura duten erakundeen bitartez; horrela, organo horrek bidezko neurriak hartu eta larrea erabiltzen duten gainerako abere-taldeak babestuko ditu.

Estas cargas podrán variar en función de la evolución de los pastos en cada una de las zonas, y no deben ser considerados valores absolutos, sino de referencia, ya que el tipo de manejo que se realice con el ganado podrá variar sustancialmente la carga ganadera admisible.

La carga ganadera de Urkiola se deberá adecuar al estado que en cada momento presente el pasto. Si los recursos pascícolas disponibles no pudieran sustentar a la cabaña existente (septiembre podría ser el mes más problemático), se adoptarán medidas para salvaguardar la actividad ganadera y para evitar la sobreexplotación de los propios recursos pascícolas.

– Períodos de pastoreo. Las asociaciones de ganaderos propondrán anualmente los períodos de pastoreo en sus correspondientes unidades de gestión. Comunicarán al Órgano Gestor del Parque estos períodos.

– Vaciado sanitario. Dadas las condiciones de Urkiola, se considera que las zonas de ganadería extensiva deberán estar libres de ganado, al menos durante el período comprendido entre enero y marzo, ambos inclusive. Por tanto, el Parque quedará libre de ganado durante un periodo a convenir con los ganaderos, de forma que sea posible realizar un vaciado sanitario. Durante los meses de vaciado sanitario, todo ganado será retirado del Parque, previo aviso de sus dueños.

– Los titulares de las explotaciones ganaderas deberán cumplir estrictamente las normas sanitarias que se dicten desde los servicios técnicos de las Administraciones. Los rebaños de animales positivos a cualquier enfermedad, objeto o no de campaña sanitaria, deberán cumplir las normas y protocolos que de forma particular o general dicten para cada caso las distintas administraciones. Respecto a la sarna bovina, todo rebaño afectado durante la invernada deberá ponerse en conocimiento del Órgano Gestor del Parque por medio de las entidades encargadas de llevar a cabo el registro de ganado, a fin de que éste tome las medidas pertinentes y salvaguarde al resto de rebaños que hacen uso del pasto.

– Abere guztiek parasitoen aurkako tratamendu egokiak hartuko dituzte, larre publikoetara eraman baino lehen, eta gainera, kanpaina osoan ere tratamendu horiek aplikatuko zaizkie.

– Administrazioek bidezko arau zooteknikoak eman ditzakete, batez ere estaltzeko garaiei dagokienez.

– Urkiolako Parke Naturaleko lur publikoetan ardiak, zaldiak, behiak, ahuntzak eta apikolak (txerriak, kunikola, hegaztiak, etab.) soilik egon daitezke, etxolaren bat duten abeltzainen kontsumorako diren eta kontrolpean daudenak izan ezik.

– Erlauntzen titularrek beharrezko segurtasun neurriak hartuko dituzte, horiek erabiltzaileentzat arriskutsuak ez izateko, eta bestela, horien kokalekua aldatu egin beharko da. Arau orokortzat, seinaleztatu, inguruan hesiak jarri eta erabilera publikoko elementuetatik urrun kokatuko dira, esate baterako, Parkeko etxeetatik, josteta-eremuetatik, ibilbideetatik eta halakoetatik urrun.

4.2.3.– Jarduketak.

4.2.3.1.– Presazkoak.

– Osasuneko huste-aldi bat ezarriko da urtero, eta bertan, abere guztiak menditik atera beharko dira; aldi horretan mendian dauden abere guztiak hil egingo dira.

– Identifikatu gabeko abereak hiltzea. Identifikatu gabe edo Planeko arauak betetzen ez dituen abererik aurkituz gero, kendu eta hil egingo da; arreta berezia emango zaie ahuntzei. Horretarako, elkarlanean jardun beharra dago bai abeltzainen elkarteekin eta udalekin, baita, partikularren mendien kasuetan, lur jabe eta lur jabeen elkarteekin ere.

– Benetako abeltzaintza kargen jarraipenerako mekanismo fidagarria ezarriko da, baita zonen arabera baimendutako abeltzaintza-kargak betetzea zaintzeko mekanismoa ere, eta Organo Kudeatzaileak zigor neurriak har ditzake, horiek betetzen ez badira.

– Abereek erabiltzen dituzten zohikaztegi hezeak hesitu egingo dira, aurretik interesatuei jakinarazi ondoren. Landaredi-formazio interesgarri hauek etengabe zapalduz gero, hondatu eta galdu egiten dira.

4.2.3.2.– Beharrezkoak.

Azpiegituren mantenamendua. Orain dauden abeltzaintzarako azpiegiturak inongo akatsik gabe indarrean jarrai dezaten eta kontserbatu daitezen, foru aldundiek hasierako dirulaguntzak emango dituzte.

4.2.3.3.– Komenigarriak.

– Pol-Pol inguruan txakurrek lotuta egon behar duten aldea ezarriko da, eta hori adierazten duten seinaleak jarriko dira bisitariak ibiltzen diren pasaguneetan.

– Todos los animales deberán recibir los tratamientos antiparasitarios adecuados antes de acceder a los pastos públicos, sin menoscabo de los que tengan que realizar a lo largo de toda la campaña.

– Las administraciones podrán dictar las normas zootécnicas que estimen oportunas, especialmente en lo concerniente a las épocas de cubrición.

– No se autorizará ningún otro tipo de ganado distinto del ovino, caballar, vacuno, caprino y apícola (porcino, cunícola, avícola, etc.) en los terrenos públicos del Parque Natural de Urkiola, salvo los que estén destinados al consumo propio por los pastores concesionarios de alguna chabola y se tengan debidamente controlados.

– Los titulares de colmenares deberán tomar las medidas de seguridad necesarias para que éstas no supongan un peligro para el resto de usuarios, en cuyo caso deberá ser modificada su ubicación. Como norma general, deberán estar señalizadas, valladas y alejadas de los elementos de uso público, tales como casas del Parque, áreas recreativas, itinerarios, etc.

4.2.3.– Actuaciones.

4.2.3.1.– Urgentes.

– Se establecerá un periodo anual de vaciado sanitario, en el que todo ganado deberá ser retirado del monte, procediéndose a la eliminación del ganado que se encuentre en el monte en estas fechas.

– Eliminación del ganado no identificado. Se procederá a la retirada y eliminación del ganado no identificado del Parque o que no cumpla las especificaciones de este Plan Rector de Uso y Gestión, con especial vigilancia para el ganado caprino. Se contará con las asociaciones ganaderas correspondientes, ayuntamientos y en caso de montes particulares con los propietarios de los terrenos y sus asociaciones, tanto para la planificación de las actuaciones como para su ejecución.

– Establecimiento de un mecanismo fiable de seguimiento de las cargas ganaderas reales y de vigilancia del cumplimiento de las cargas ganaderas máximas permitidas por zonas, pudiendo tomar el Órgano Gestor medidas sancionadoras en caso de no respetarse éstas.

– Se continuará, previa información a los interesados, con el vallado y protección de las zonas higroturbosas que actualmente utiliza el ganado. El pisoteo de estas formaciones de flora de gran valor impide su desarrollo.

4.2.3.2.– Necesarias.

Conservación de infraestructuras. Se facilitará mediante subvención inicial por parte de las diputaciones forales la conservación en un estado de uso óptimo de las infraestructuras ganaderas que existen en la actualidad.

4.2.3.3.– Convenientes.

– Delimitación de una zona en los alrededores del Pol-pol en la cual los perros deberán ir atados, y señalización de esta zona en los puntos de paso frecuente de

Mugaketa egiteko, kontuan hartuko da erabilera publikoa edota artzaintzako erabilera intentsiboa.

– Bisitariei informazioa emango zaie, Parkean bisitaririk gehien jasotzen duten zonetan txakurrak kontrolatuta eduki behar izateari buruz.

– Pagadia suspertzeko lanekin jarraituko da, abeltzaintza-erabilera garrantzitsurik ez duten zonetan.

– Tratamendu eta zoosanitarioetan erabilitako produktuak zaintzeko dispositiboa finkatuko da.

4.2.3.4.– Baldintzapekoak.

Ur-askak Pol-Pol, Zabalandi eta Ipiztekoarriaga aldeetan, udalen arteko akordioa eginez gero. Inguru honetan hainbat ur-gune natural daude, baina egokia izango litzateke ur-aska artifizialak egitea; horretara, ur-baliabideak, osasun baldintzak eta abeltzaintza bera hobetu kudeatuko lirateke. Kutsadura ekiditeko neurriak eta, oro har, ura ongi kudeatzekoak bermatu beharko dira. Aprobetxamendurako, beste ur-gune natural batzuk aldatzea edo lehortzea ekidingo da.

4.3.– Basoko aprobetxamenduak.

Mendien antolamendua eta, oro har, baso plangintza oso epe luzeetan garatzen da eta urte asko igaro behar dira helburuak iristeko. Beraz, Urkiolako Parke Naturala Erabiltzeari eta Kudeatzeari buruzko Plan Gidariak bost urte baino iraungo ez duenez, zaila da horrelako plangintza batekin uztartzen. Horregatik, bi ikuspuntuak jaso ditzaketen neurri elkarrekiko osagarriak hartu behar dira. Hori horrela, atal honetan emango diren baso -antolamenduari buruzko jarraibideek eta irizpideek Parkeko Organo Kudeatzailearen jarduna etorkizunean bideratu nahi dute. Epe laburrean, berriz, datozen urteetako jarduketak arautuko dira, hain zuzen, aurreikusten diren mozketa-azalerak hartuko dituen plangintza bat.

Kontuan hartu behar da, lehengo EKPGan intsinis pinudien adin motetan detektaturiko desorekaren ondorioz, pinudi helduak mozteko erritmoa handia izan dela. Azken 10 urteotako mozketaren azalera 310 hakoa izan dela kalkulatzen da (1994an inbentarioan sartutako pinudi-azalera osoaren % 29). Egoera horren ondorioz, etorkizunean azken mozketaren azalera askoz ere txikiagoa izango da, eta gainera, masa sorberrietan kudeaketa-lan handiak egin behar izango dira: mozketak, soiltzeak, etab.

4.3.1.– Jarraibideak.

– Urkiolako baso-multzoak mantentzea. Horretarako, mozketak egiten diren lekuetan berroihaneztatzeak bultzatuko dira, bai naturalak bai artifizialak.

– Basozaintza kudeatzeko NBAPk arautuakoari eustea.

visitantes. La delimitación se hará teniendo en cuenta el uso público y/o pastoril intenso.

– Refuerzo de la información a los visitantes sobre la conveniencia de que los perros vayan controlados en las zonas más visitadas del Parque.

– Se continuará con las labores de regeneración del hayedo en las zonas en las que no existe un uso ganadero importante.

– Establecimiento de un dispositivo de vigilancia de los productos utilizados en los tratamientos zoosanitarios.

4.2.3.4.– Condicionadas.

Abrevaderos en la zona de Pol-pol-Zabalandi-Ipiztikoarriaga, siempre que sea posible llegar a un acuerdo entre los ayuntamientos. Esta zona posee diversos puntos de agua naturales, pero sería conveniente la creación de abrevaderos artificiales para lograr mejoras en la utilización de los recursos, en las condiciones sanitarias y en la gestión del ganado. Estos abrevaderos estarán dotados de las medidas precisas para evitar contaminaciones y gestionar correctamente el agua. Para su aprovisionamiento se evitará alterar o desecar otros puntos de agua naturales.

4.3.– Aprovechamientos forestales.

La ordenación de montes, como sucede en general en toda planificación forestal, requiere largos periodos de tiempo para su desarrollo y obtención de resultados. Ello entra en contradicción conceptual con el presente Plan Rector de Uso y Gestión del Parque de Urkiola, previsto para cinco años, por lo que se debe tomar medidas que permitan complementar ambos puntos de vista. Así, en el presente apartado se van a dar una serie de directrices y criterios de ordenación forestal, cuyo fin es guiar al Órgano Gestor del Parque en sus actuaciones futuras. De forma más cercana en el tiempo, se va a planificar las actuaciones a realizar en los próximos años, por medio de una planificación de las superficies de corta prevista a corto plazo.

Hay que tener en cuenta que el desequilibrio en las clases de edad de los pinares de radiata detectado en el anterior PRUG se ha traducido en un alto ritmo de corta de pinares adultos. Se estima en 310 ha (un 29% de la superficie de pinares inventariados en 1994) la superficie de corta a hecho en estos últimos 10 años. Esta situación se va a traducir en el futuro, por un lado, en un claro descenso de la superficie de corta final y, por otro, en unos considerables trabajos de gestión en las masas recién creadas: desbroces, clareos, etc.

4.3.1.– Directrices.

– Mantener las masas arboladas de Urkiola, para lo cual se deberá repoblar natural o artificialmente las superficies sometidas a corta.

– Continuar la gestión forestal seguida de acuerdo con la normativa que deriva del PORN.

– Orain arte bezala, Parkeko Organo Kudeatzaileak baso-lurrak erosten jarraitzea; batez ere, baso naturalak eta paisaia aldetik eta babeste aldetik interesgarrienak eskuratzen saiatuko da.

– Baso-jabeen elkarteak sustatzea. Elkarte hauek harremanetan egongo dira zuzenean Parkeko Organo Kudeatzailearekin beren lurretako basoak kudeatzeko. Halaber, jabeei ezarriko zaizkien erabilera-mugak direla eta, horien konpentsazioa lortzeko akordioak arautuko dituzte.

– Baso-landaketak egiterakoan, Antolamendu Planaren Araudian ezarritako hostozabal autoktonoen portzentajeak aplikatzea. Dirulaguntzak bideratzeko, Erabili eta Kudeatzeari buruzko oraingo Planean, basozaintza arloan eman beharreko konpentsazioei buruzko atalean, xedatutakoari eutsiko zaio (I. eranskina). Hau errazteko, ondoko jarraibideak eta irizpideak jarraituko dira:

• Adin bereko landaketa-partzela handietan, akordioak bilatuko dira bertako jabeekin, nork bere mendiak kudeatzeko planak egin ditzan. Plan horietan espezie bakoitzaren banaketa egokia eta dirulaguntzak jasotzeko bideak jasoko dira.

• Babes berezia duten aldeetan (arrazoi fisikoak, ekologikoak edo paisaia aldetikoak direla medio) legez araututa dagoena baino hostozabal autoktono kopuru handiagoa erabiltzearen alde jokatuko da, betiere jabeekin bat egin ondoren. Hori bultzatzeko eta NBAPren 20. atalean xedatutakoa betez, aintzat hartuko dira Urkiolako Parke Naturaleko paisaiaren bereizgarritasunak eta babestu beharreko natur eta kultur elementuak (II eta III eranskinak).

– Orain arteko Zainketa Planak eta suteak itzaltzeko sistemak mantentzea, eta prebentzio neurriak areagotzea lehentasunezko babesa duten aldeetan eta suteak errazago har ditzakeen aldeetan.

– NBAPren 5.2.3. arauan xedatutakoari jarraituz, espezie autoktonoetako mendietan baso-soilketa edota erabilera-aldaketa egin behar denean, hori apartekotzat joko da eta unean uneko erabakiak hartuko dira. Zehazteko, irizpide hauek ipin daitezke: pertsona-ondasunen babesa, masa kontserbatzea (izurriak, suteak), etab.

– Baso ustiapenetan inguruaren aldeko jarduerak bultzatuko dira.

4.3.2.– Arauketak.

Basoen erabilera arautzen duten NBAPren ataletan xedatutakoa betez eta zonen banaketa kontutan hartuta, honako koadroan agertzen diren basozaintzaren arauketak aplikatuko dira:.

– Continuar con la actual política de compra de terrenos forestales por parte del Órgano Gestor del Parque, centrándola en los bosques naturales y en los terrenos de mayor interés paisajístico y protector.

– Potenciar las asociaciones de propietarios forestales. Éstas constituirán los interlocutores directos con el Órgano Gestor del Parque para la gestión forestal de sus terrenos, articulando los acuerdos necesarios para el establecimiento de compensaciones por limitaciones de uso.

– Aplicar en las plantaciones forestales los porcentajes de frondosas autóctonas estipulados en la normativa del Plan de Ordenación. Con el fin de determinar las ayudas a conceder, se seguirá el presente Plan Rector de Uso y Gestión, en su apartado referente al establecimiento de compensaciones en el sector forestal (anexo I). Para simplificar su puesta en marcha, se observarán las siguientes directrices y criterios:

• En parcelas grandes de plantación coetánea, se llegará a acuerdos con los propietarios para que elaboren planes de gestión de sus montes, en los cuales tengan en cuenta la distribución más adecuada de cada especie y la forma de percepción de las ayudas establecidas.

• En zonas que requieran una especial protección, por motivos físicos, ecológicos o paisajísticos, se intentará aplicar, de acuerdo con los propietarios, unos porcentajes de empleo de frondosa autóctona superiores a los mínimos obligatorios. A estos efectos, y en cumplimiento del PORN, se señalan las singularidades del paisaje del Parque Natural de Urkiola, teniendo en cuenta los elementos naturales y culturales a preservar (anexos II y III).

– Mantener el plan de vigilancia y los medios de extinción de incendios seguido hasta la fecha, extremando los trabajos preventivos en las zonas de mayor riesgo de incendio y en las áreas de protección prioritaria.

– De acuerdo con la norma 5.2.3. del PORN, por su carácter excepcional, las decisiones que supongan una corta a hecho o un cambio de uso en montes poblados predominantemente por especies autóctonas, se tomarán en cada caso concreto. Para una mayor concreción, se pueden adoptar los siguientes criterios: protección de personas y bienes, mantenimiento de la masa (plagas-incendios), etc.

– Fomentar los tratamientos paisajísticos en las explotaciones forestales.

4.3.2.– Regulaciones.

En desarrollo de los artículos que regulan el uso forestal en el PORN, y de acuerdo con la zonificación, se deberá aplicar el siguiente cuadro de regulaciones forestales.

| Zonen banaketa<br>*Zonificación* | Lurren oraingo erabilera<br>*Uso actual del terreno* | Babesteko arrazoia<br>*Factor protector limitante* | Baso-jarduketa<br>*Actuación forestal* |
|---|---|---|---|
| % 50etik gorako malda duten lur-zatiak<br>*Parcelas cuya pendiente media sea superior al 50%* | Baso naturalak<br>*Bosques naturales* | Lurraren malda<br>*Pendiente del terreno* | Zuhaitz-masaren artapena<br>*Mantenimiento de la masa arbórea* |
| | Gainerakoa<br>*Resto* | Lurraren malda<br>*Pendiente del terreno* | 60 urtetik gorako txanda duten espezieak landatu<br>*Plantación con especies de turno superior a 60 años* |
| Babes bereziko aldea<br>*Zona de especial protección* | Baso naturalak<br>*Bosques naturales* | Paisaia eta ekosistemak babestea<br>*Protección de paisaje y ecosistemas* | Zuhaitz-masaren artapena<br>*Mantenimiento de la masa arbórea* |
| | Landaketak<br>*Plantaciones* | Paisaia eta ekosistemak babestea<br>*Protección de paisaje y ecosistemas* | Zuhaitz-masa artatu; landatzen diren zuhaitzen % 10 hostozabal autoktonoak<br>*Mantenimiento de la masa arbórea, empleando en las plantaciones un 10% de frondosa autóctona* |
| | Basozaintza ez beste erabilera bat<br>*Uso no forestal* | Paisaia eta ekosistemak babestea<br>*Protección de paisaje y ecosistemas* | Oraingo erabilerari eutsi; landatzen diren zuhaitzen % 25 hostozabal autoktonoak<br>*Mantenimiento del uso actual, empleando en las posibles plantaciones forestales un 25% de frondosa autóctona* |
| Parkeko gainerako aldeak<br>*Resto del Parque* | Basozaintza<br>*Uso forestal* | | Zuhaitz-masaren artapena<br>*Mantenimiento de la masa arbórea* |
| | Basozaintza ez beste erabilera bat<br>*Uso no forestal* | | Oraingo erabilerari eutsi<br>*Mantenimiento del uso actual* |

4.3.3.– Jarduketak.

4.3.3.1.– Jarduketak behar dituzten lurrak.

Basozaintzaren arauketak ezartzen dituen koadroa zonaldeen arabera aplikatuz gero, ikusten da lur batzuek lehentasunezko jarduketak behar dituztela. Basomultzo degradatuak, berez birsortzen ez direnak eta interes handia dutenak lurzorua, ura, paisaia edo ekosistemak babesten dituztelako. Lurrotan, berriz, suspertze naturala lortzeko lanak hasi beharko lirateke, araudiaren arabera: artzaintza itxi eta suspertzeko basotxo txikiak sortu, pagadiaren goialdeko mendian.

4.3.3.– Actuaciones.

4.3.3.1.– Terrenos de actuación.

Aplicando el cuadro de regulaciones forestales por zonas, se detecta la aparición de diversos terrenos de actuación prioritaria. Estarían ocupados por masas forestales degradadas y con regeneración natural ausente, que reúnen un gran interés en cuanto a la protección del suelo, agua, paisaje o ecosistemas. Se propone en estos terrenos el inicio de labores tendentes a conseguir su regeneración natural siguiendo la normativa: cierre al pastoreo y creación de pequeños bosquetes de regeneración por monte alto del hayedo.

| Terreno mota<br>*Tipo de terreno* | Jabea<br>*Propietario* | G.g.b. azal. (ha)<br>*Sup. aprox (ha)* |
|---|---|---|
| Andastoko pagadiaren mozketa<br>*Hayedo trasmocho de Andasto* | Norbanakoak<br>*Particulares* | 30 |
| Mendiolaren goialdeko pagadia, anduia eta mozketa<br>*Hayedo de cepa y trasmocho de la parte alta de Mendiola* | Abadiñoko Udala<br>*Ayunt. Abadiño* | 70 |
| Guztira<br>*Total* | | 100 |

4.3.3.2.– Oro har.

a) Beharrezkoak.

– Urkiolako mendi publikoen zedarritzea eta, beharrezkoa izanez gero, mugarriak jartzea.

– Abadiñoko Udaleko UP-18 mendiaren («Urkiola basoak») antolaketa-proiektuaren 1. berrikuspena egitea.

– Kontrolik gabeko larratzea arautzea, abereek basoaren birsorkuntza lortu nahi den lekuetan prozesu hori eragotzi ez dezaten. Leku horiek titularitate publikokoak behar dute izan; baso naturala birsortzeko interes berezia aitortuko zaie; eta Aramotz, Leungane, Eskuagatx, Untzillatx, Anboto eta Arangioko parajeetako aldeak izango dira.

– Araba eta Bizkaiko zainketa zerbitzuen arteko koordinazioa erraztea.

– Parkeko zaindarien kopurua egokitzea indarreko legeriak (Foru Arauak, Foru Dekretuak, NBAP, PEKZ) eskatzen duen kontrol-beharretara. Zainketa jaiegunetan eta garai berezietan areagotuko da, kasu: ehiza garaian, animalien umatze garaian, sua erraz piztu daitekeen egunetan, etab.

– Erreketak eta suaren erabilera kontrolatzea, batik bat erregaiak metatzen diren lekuetan.

– Erregaiak menditik kentzea, batik bat suak erraz har ditzakeen inguruetan. Horretarako hiru bide daude:

• Berriki landatu diren eta suteetarako berezko joera duten aldeetan (leku aldapatsuak, eguterakoak, helbide gaitza dutenak) aldiro garbiketa lanak egitea.

• Konifero-basoetan prebentzioko basogintza egitea, batez ere inausketa eta mozketa bidez.

• Atsedenlekuetako zaborrak eta bisitariak biltzen diren lekuetakoak aldiro-aldiro jasotzea.

– Parkeko bide-sare nagusia eta Parketik kanpokoa ongi mantentzea, suteak gertatzen badira berebiziko garrantzia dutelako. Egunik arriskutsuenetan, sua itzal-

4.3.3.2.– Con carácter general.

a) Necesarias.

– Llevar a cabo el deslinde y, en caso de estimarse necesario, el amojonamiento de los distintos montes públicos de Urkiola.

– Realizar la 1.ª revisión del Proyecto de ordenación del monte de U.P. n.º 18 «Urkiola basoak» del Ayuntamiento de Abadiño.

– Regular el pastoreo incontrolado, evitando la presencia de ganado no controlado en las zonas en que se prevea conseguir la regeneración del bosque. Estas zonas se ubicarán preferentemente en las zonas que sean declaradas como de interés para su regeneración arbórea natural y en terrenos de titularidad pública de las zonas de Aramotz, Leungane, Eskuagatx, Untzillatx, Anboto y Arangio.

– Facilitar la coordinación de los medios de vigilancia y actuación de Álava y Bizkaia.

– Adecuar el número de guardas del Parque a las necesidades de control que resultan de la aplicación de la normativa vigente (normas y decretos forales, PORN, PRUG), reforzando la vigilancia en días festivos y durante las épocas de mayor necesidad: temporada cinegética o de cría, días de mayor riesgo de incendio, etc.

– Control de las quemas y uso del fuego, sobre todo en grandes acumulaciones de material combustible.

– Eliminación parcial de material combustible, principalmente en las zonas de mayor peligro de incendio. Esta eliminación debe llevarse a cabo a través de tres grandes operaciones:

• Desbroces periódicos en las zonas de reciente plantación y afectadas por un mayor riesgo intrínseco de incendio (fuertes pendientes, exposición de solana, mala accesibilidad).

• Realización de una selvicultura preventiva, principalmente en forma de podas y clareos en las masas de coníferas.

• Recogida periódica de los desperdicios acumulados en las áreas recretivas y demás lugares de concentración de visitantes.

– Correcto mantenimiento de la red viaria exterior y principal del Parque Natural de Urkiola, dada su gran importancia en caso de incendio. Durante los días de

tzeko ibilgailuek erabiltzeko moduan egon beharko du bide-sareak eta zirkulazioa oztopa dezaketen trabak (giltzapetutako pasabideak, aparkatutako ibilgailuak) ahal delarik ekidin beharko dira.

b) Komenigarriak.

– Antolaketa-proiektuak edo kudeaketako plan teknikoak egitea Urkiolako Parke Naturaleko mendi publiko nagusietan, etorkizuneko jarduketak aurreikusteko eta antolatzeko. Ahal delarik, gauza bera bultzatu partikularren mendietan.

– Basoko lur-zati guztien ezaugarri fisiko eta administratiboak eta jasotako dirulaguntzak biltzen dituen datu-basea egunean edukitzea.

– Urkiolako haziak jasotzeko sistema bat sortzea, hartara, Parkean bertan edo inguruetan gero egingo diren landaketetarako jatorrizko landare-gordailu bat izango da.

4.3.3.3.– Aldeka (denak ere jarduketa komenigarriak).

1. aldea.– Ordoki karstikoak.

Hazkunde moteleko espezieen landaketa eta birsorkuntza naturala sustatzea, baso-produktibitate txikia eta babesteko behar handia duten lurretan. Horretarako, laguntzei buruzko foru dekretuetan jasotzen diren dirulaguntzak erabiliko dira. Lur hauetako jabeak, behin mozketa eginez gero, birsorkuntza naturala bultzatzeko ezarri diren laguntzez baliatu ahal izango dira.

2. aldea.– Kare-harrizko mendien ardatza.

Hazkunde moteleko espezieen landaketa eta birsorkuntza naturala sustatzea, baso-produktibitate txikia eta babesteko behar handia duten lurretan. Horretarako, Laguntzetarako Foru Dekretuetan jasotzen diren dirulaguntzak erabiliko dira. Lur hauetako jabeak, behin mozketa eginez gero, birsorkuntza naturala bultzatzeko ezarri diren laguntzez baliatu ahal izango dira.

3. aldea.– Mañaria eta Mendiola haranak.

Pagadietan, haltzadietan eta artadietan, hesitutako aldeak ezartzea, birsorkuntza naturalerako eremu esperimentalak sortzeko.

4. aldea.– Isurialde mediterraneoa.

Basozaintzaren aldetik degradatuta dauden lurrak (higadura, suteak, kale egin duten landaketak) lehengoratzea Urkiolamendi, Asuntze eta Atxin inguruetako mendi publikoetan. Bertan oihaneztatze lanak egiten ari dira, batez ere hostozabal naturalak landatuz.

5. aldea.– Hego-ekialdeko gailurrak.

Arian-arian eta moztu ahala, Tellamendiko hego-isurialdeko mendi publikoetan, estaziotik kanpo hazten

máximo peligro de incendio, dicha red debe estar transitable para los vehículos de extinción y se debe minimizar la incidencia de obstáculos que pudieran dificultar su circulación (cierres bajo llave, otros vehículos estacionados).

b) Convenientes.

– Llevar a cabo la realización de proyectos de ordenación o de planes técnicos de gestión en los principales montes públicos del Parque Natural de Urkiola, con el fin de prever y ordenar las actuaciones futuras. Favorecer así mismo su realización en montes de particulares.

– Mantener periódicamente actualizada la base de datos que recopila las características físicas y administrativas de cada parcela forestal y las ayudas concedidas.

– Crear un sistema de recogida de semilla de Urkiola, cuyo fin sea proporcionar planta con garantía de origen para las plantaciones que se lleven a cabo en los próximos años en el Parque y sus inmediaciones.

4.3.3.3.– Por zonas (todas ellas actuaciones convenientes).

– Zona 1.– Planicies kársticas.

Fomentar, por medio del mecanismo de concesión de subvenciones contenido en los decretos forales de ayudas, las plantaciones de especies de crecimiento lento y la regeneración natural en los terrenos de menor productividad forestal y mayor interés protector. Los propietarios de este tipo de terrenos podrán acogerse, una vez cortada la masa, a las ayudas que se establezca a fin de recuperar la vegetación arbórea natural.

Zona 2.– Eje de montañas calizas.

Fomentar, por medio del mecanismo de concesión de subvenciones contenido en los Decretos Forales de Ayudas, las plantaciones de especies de crecimiento lento y la regeneración natural en los terrenos de menor productividad forestal y mayor interés protector. Los propietarios de este tipo de terrenos podrán acogerse, una vez cortada la masa, a las ayudas que se establezca a fin de recuperar la vegetación arbórea natural.

– Zona 3.– Valles de Mañaria y Mendiola.

Establecer en hayedos, alisedas y encinares zonas de regeneración natural, con fines experimentales y en parcelas debidamente acotadas.

– Zona 4.– Vertiente mediterránea.

Mantener y, en su caso, ampliar las labores de recuperación de terrenos forestalmente degradados (erosión, incendios, plantaciones fallidas) en los montes públicos de las zonas de Urkiolamendi, Asuntze y Atxin. Dicha recuperación se lleva a cabo por medio de diversas plantaciones forestales, con dominancia de las frondosas naturales.

– Zona 5.– Cumbres del extremo suroriental.

Sustituir paulatinamente, conforme se vayan cortando, las zonas ocupadas por pino radiata situado fuera de

diren intsinis pinuen ordez zuhaitz espezie naturalak landatzea.

Arangioko eta Tellamendiko pagadietan, hesitutako aldeak ezartzea, birsorkuntza naturalerako eremu esperimentalak sortzeko.

4.4.– Paisaiaren kontserbazioa.

4.4.1.– Jarraibideak.

– Abeltzaintzako aprobetxamenduak arautzen dituen atalean ezarritakoa beteko da, larreak ezartzeko eta hobetzeko lanek paisaian izan beharreko integrazioari dagokionez.

– Basoko aprobetxamenduen atalean ezarritakoaren arabera, basoko ustiakuntzetan paisaiari lotutako tratamenduak sustatuko dira.

– Paisaiaren aldetik baliorik handiena duten lekuetan, Parkeko Organo Kudeatzaileak horiek babesteko eginkizun aktiboa izango du; gainera, paisaian eragin kaltegarria duten jarduerak baztertu eta narriaturiko zonetan, paisaia naturala suspertzeko jarduketak bideratuko ditu.

4.4.2.– Arauketak.

Baliabideak Antolatzeko Planeko 5.1.3 arauan adierazitakoaren arabera, beharrezkoa da Organo Kudeatzailearen aurretiazko txostena, paisaian aldaketak eragiten dituzten erabilera-aldaketetan, EKPGn zehaztutako berezitasuna (paisaiari lotutako berezitasuna) duten zonetan. Halako zonak III. eranskineko kartografian agertuko dira. Urkiolako Parke Naturaleko paisaiaren berezitasunak adierazteko, ondoren adierazitako metodoa erabili da, Baliabide Naturalak Antolatzeko Planean proposaturiko eskeman euskarrituta dagoen metodoa.

a) Landare moten sailkapena, kalitatearen arabera.

Urkiolako Parkean hiru landare mota daude, kalitatearen arabera. 1. motan edo kalitate handikoan, haitzetako landareak eta masa naturalak sartzen dira. 2. motan edo kalitate ertainekoan, zuhaitzak (mendiko txilardia, sastraka) eta hostozabalen zuhaitz-landaketak sartzen dira. Azkenik, 3. motan edo kalitate txikikoan, gainerako landare guztiak sartzen dira, batez ere koniferoen landaketak, sastraka mota desberdinak eta landare antropogenoak.

b) Zonen banaketa, ikusgarritasunaren arabera.

Sortutako ikusgarritasun mapak aukera ematen du gune batetik ikus daitekeen azaleraren ehunekoa jakiteko, baita norbera zein gunetatik ikus daitekeen jakiteko ere. Kontuan hartu dira Parkeko lurrak eta Parkea ikusteko aukera ematen duten kanpoaldeko zonak, 5 km-ko erradioaren barrukoak (Ibaizabal, Aramaio, Oleta eta Arratia haranak). Urkiolako Parkearen kokaleku topografikoak (gailurren ardatz lerrozuzenarekin eta ibarbide nahiz muino kopuru handiarekin) ez du ikusgarritasun maila handiak lortzeko aukerarik ematen.

estación por especies arbóreas naturales en los montes públicos de Tellamendi.

Establecer zonas de regeneración natural, con fines experimentales y en parcelas debidamente acotadas, en los hayedos de Arangio y Tellamendi.

4.4.– Conservación del paisaje.

4.4.1.– Directrices.

– Se atenderá a lo dispuesto en el apartado que regula los aprovechamientos ganaderos, en relación con la integración en el paisaje de labores de implantación y mejora de pastos.

– De acuerdo con lo preceptuado en el apartado de aprovechamientos forestales, se fomentarán los tratamientos paisajísticos en las explotaciones forestales.

– En las singularidades de mayor valor paisajístico determinadas, el Órgano Gestor del Parque asumirá un papel activo en su protección, tratando de evitar los impactos paisajísticos negativos y encaminando sus actuaciones la recuperación del paisaje natural en las zonas degradadas.

4.4.2.– Regulaciones.

La norma 5.1.3. del Plan de Ordenación de los Recursos señala la necesidad de informe previo del Órgano Gestor en cambios de usos que supongan modificaciones del paisaje en aquellas zonas de singularidad paisajística que defina el PRUG. Estas zonas se cartografían en el anexo III. Se ha empleado el siguiente método para señalar las singularidades paisajísticas del Parque Natural de Urkiola, apoyado en el esquema propuesto en el PORN.

a) Clasificación de los tipos de vegetación según calidad.

Los tipos de vegetación del Parque de Urkiola se dividen en tres clases, teniendo en cuenta su calidad. La clase 1 o de calidad alta agrupa a la vegetación de roquedo y a las masas naturales. La clase 2 o de calidad media agrupa a la vegetación arbustiva (brezal alto montano, matorral bortal) y a las plantaciones arbóreas de frondosas. Por último, la clase 3 o de calidad baja agrupa al resto de tipos de vegetación, básicamente plantaciones de coníferas, distintos tipos de matorral y vegetación antropógena.

b) Zonificación según intervisibilidad.

El mapa de intervisibilidad generado permite conocer el porcentaje de superficie que, desde cada punto, se puede contemplar y, de igual manera, desde el que se puede ser avistado. Se ha tenido en cuenta tanto los terrenos del Parque como las zonas periféricas desde las que se divisa el Parque, tomando como radio de alcance 5 km (valles del Ibaizabal, Aramaio, Oleta y Arratia). La disposición topográfica del Parque de Urkiola, con un eje rectilíneo de cumbres y un gran número de vaguadas y lomas, no permite alcanzar valores altos de intervisibilidad.

c) Bi mapen lotura.

Bi mapetan oinarrituz, mapa orokorra sortu da, eta horrek, gune bakoitzaren eta horren inguruen ikusgarritasuna eta landareen kalitatea kontuan hartuta, lurrak sailkatzen ditu. Paisaiaren berezitasunak mugatzeko hasierako irizpidetzat, % 15etik gorako ikusgarritasuna eta 1,6tik beherako landare-kalitatea (gune bakoitzetik ikusitako landareei dagokienez) duten laukiak hartu dira.

d) Paisaiaren berezitasunen mugaketa.

Goian aipatutako laukiak baliozkoak izan dira paisaiaren berezitasunak mugatzeko, lurraldean erraz ezagutzeko moduko lerroetara egokituta (esate baterako, landare-motak, ibarbideak edo mailaren kurbak). Mugatutako zonen barruan, honako hauetatik hurbileko lurrak biltzen dira: Artaun, Mugarra, Mañaria, Lexartxu-Eskuagatx, Saibi, Urkiolagirre, Untzillatx, Alluitz-Anboto-Tellamendi eta Arangio. Beste modu batera esateko, Parkeko kota nagusiak hartzen dituzte barruan, baita ikusgarritasunarekiko eta landare-kalitatearekiko lotura zuzena duen azalera ere (mendi horietako malden azalera).

e) Irizpide osagarriak.

Berezitasun fisiko horiek, berriz, paisaiaren babeserako interesgarriak diren beste irizpide batzuekin osatu dira:

– Balio kulturala. Urkiolako kultur ondarearen mapako gune interesgarri batzuk aukeratuta, 100 metroko erradioa duen babes-zerrenda hartu da kontuan.

– Maiztasun-maila. Bisitari kopururik handiena duten Parkeko eremuak hartu dira aintzat, hau da, josteta-eremuak eta Santutegiaren inguruko zona. Eremu horiek bildu egin dira, Baliabide Naturalak Antolatzeko Planeko harrera nahiz igarotze zona eta La Neberako josteta-eremua (Durango) kontuan hartuta.

4.4.3.– Jarduketak (komenigarriak).

Mañaria eta Baltzola lotzen dituen linea elektrikoaren zutoinak kentzea proposatu da, linea hori gaur egun ez baita erabiltzen.

4.5.– Herri erabilera.

4.5.1.– Xedapen orokorrak.

4.5.1.1.– Jarraibideak.

Organo Kudeatzaileak irizpide orokor batzuk jarraitu beharko du herri erabilera arautzeko:

– Ikerketa-eremuaren tratamendu berezia egitea, zona desberdinek herri erabilerako jarduerak eta hornidurak edukitzeko duten bokazio handiagoa edo txikiagoa aintzat hartuta.

– Bi lurralde historikoetako erakunde eskudunen arteko koordinaziorako mekanismoak ezartzea, Parkearen kudeaketari koherentzia emateko.

c) Unión de ambos mapas.

A partir de ambos mapas, se ha generado un mapa conjunto que, teniendo en cuenta la intervisibilidad y la calidad de la vegetación de cada punto y de sus alrededores, clasifica los terrenos. Se ha tomado como criterio inicial para delimitar las singularidades paisajísticas aquellas cuadrículas que presentan una intervisibilidad superior al 15% y un valor promedio de la calidad de la vegetación visualizada desde cada punto con el citado alcance inferior a 1,6.

d) Delimitación de singularidades paisajísticas.

Las cuadrículas anteriores han servido para delimitar las singularidades paisajísticas, ajustándose a líneas fácilmente reconocibles sobre el terreno, como límites de tipos de vegetación, vaguadas o curvas de nivel. Las zonas así delimitadas agrupan terrenos próximos a Artaun, Mugarra, Mañaria, Lexartxu-Eskuagatx, Saibi, Urkiolagirre, Untzillatx, Alluitz-Anboto-Tellamendi y Arangio. Dicho de otra forma, comprenden las principales cotas del Parque y una superficie de las laderas de estos montes que está en relación directa con su intervisibilidad y la calidad de su vegetación.

e) Criterios complementarios.

Estas singularidades físicas han sido completadas con otros criterios que reúnen interés para la protección paisajística:

– Valor cultural. Se ha tomado, seleccionando diversos puntos de interés del mapa de Patrimonio cultural de Urkiola, una franja de protección de 100 metros de radio.

– Nivel de frecuentación. Se ha tomado las áreas del Parque que presentan una mayor afluencia de visitantes que son, básicamente, las áreas recreativas y la zona del entorno del Santuario. Estas áreas han sido agrupadas tomando la zona de recepción y tránsito del PORN y el área recreativa de la Nebera (Durango).

4.4.3.– Actuaciones (convenientes).

Se propone desmantelar los postes de la línea eléctrica que une Mañaria y Baltzola, actualmente fuera de uso.

4.5.– Uso público.

4.5.1.– Disposiciones generales.

4.5.1.1.– Directrices.

El Órgano Gestor ha de seguir unos criterios generales para la regulación del uso público:

– Tratamiento diferenciado del área de estudio en razón de la mayor o menor vocación de distintas zonas para albergar actividades y equipamientos de uso público según intensidad de los mismos.

– Establecimiento de mecanismos de coordinación entre los organismos competentes en ambos Territorios Históricos con el fin de dar coherencia a la gestión del Parque.

4.5.1.2.– Arauketak.

– Parkearen lurralde osoan debekaturik dago egurra jostetarako moztea, aurretiazko baimenik gabe. Gainerako erabilerak Arabako eta Bizkaiko foru arauen arabera arautuko dira.

– Parkeko Organo Kudeatzaileak emandako zerbitzu berezien eraginezko gastuak bisitariei ordainarazi ahal izango dizkie, guztiz edo neurri batean. Hain zuzen ere, kuota bat ezar daiteke, aparkalekuetan uzten diren ibilgailuetarako (aldi batean edo modu iraunkorrean), eta hori kudeaketaren beharrizanetara egokituko da.

